

Arrasate

P R E S S

1996ko
Maiatzak 31
322. zenb.

IKUSPEGIA

Iker
Barandiaran

ELKARRIZKETA

Pello Urizar

KULTURA

Ur taldearen
"Romeo y Julieta"
antzezlan


KIROLAK

Hiru arrasatear
Andeetara

Lehen Jaunartzea

Fedea, ilusioa
eta kontsumoa

Freska ezazu zure euskara!



Arrasateko Udal Euskaltegia

(16 urtetik gorakoentzat)

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte
5 ordu goizez
Maila guztiak

Matrikulaldia: Ekainaren 1etik 18ra arte

Prezioa: 6.700 pezeta
Materialeak: 1.500 pezeta
2.500 pezeta 9, 10, 11, 12 urratsekoek eta
Alfabetatze 2koek
BEKA SISTEMA daukagu

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
Telefonoak: 79 70 77 • 79 77 88 • ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

Udal Euskaltegia



AG AMAGARA

AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea
ARRASATE
Tfnoa: 79 09 09



ESKAINITZA BEREZIA
EKAINAREN 20a arte.
DEITU, ZAI GAITUZU!



INTEGRÉE
CIENCIA DE LA BELLEZA Y DEL BIENESTAR

Liporeduy®
Intégrée eta
Portofino's
zentruen
esklusiba da.

LIPOREDUY®

L-KARNITINA: ZELULITIS-arekin bukatzen duen **BIOBITAMINA**.

Emakume askok dauka zelulitis-aren arazoa.

Odolaren zirkulazio txarraren eraginez "gaixotutako zelulak" gorputzean lotuta geratzen dira, zelulitisa sortuz.

L-KARNITINA molekula, zelulitis-ari aurre egiten dio, soberan dagoen grasa eraman eta zelularen "osasuna" normalduz.

TXARTELA

***TERMOTESTER**-ekin diagnostikoa
dohainik..

***LIPOREDUY** erosterakoan, 1.800
pezetako **DESKONTURAKO BONO**A
(prezioa 4.600pzta).

Andereak emanda.

Bezero berria

Bai


Ez

Zabaldu... eta bazkaldu

Arrasateko Gaztetxeak bost urte egin ditu eta hor dirau, borrokan. 5. urteurrena ospatu zen eta ez zuen oihartzun handirik izan, ez behintzat komunikabideetan emandako garrantziarengatik (Arrasate Press, honen eredu), ezta ere herriaren inplikazio puntualarengatik.

Hau ez da harritzekoa: Herri "santu" honetan bakoitzak bereari soilik egiten dio so, eta ezeren truke, ez du (ia) inork ezer ematen. Hau, herri galdua dela diote batzuk; egia esan, beti dira berdinak lanean dihardutenak eta jende gehienari ezer gutxi axola zaio.

Hala ere, Gaztetearek dagokionez, eta beste herri batzuetan besteko (honengana-ko) premia ez badago ere (herriak baditu zenbait azpiegitu-



ra), erronka berria hasi dugu bertan. Herriari esplizituki zabaltzea da asmoa. Asmoa aldatu ez bada ere, jendeari horixe argi eta garbi esatea. Gaztetearek buruzko debate zabal bat burutzea zen lehenengo asmoa, zoritxarrez gerorako utzi behar izan duguna. Bigarren pausua, jendearen ideia eta asmoen berri izateko (hain zaila da eta!) galdeketa orrialde batzuk kalera-tzea izan da (oraindik ere, aurkituko dituzuelarik) autokritika aberasgarria eta sakona egiteko asmoz. Beste aldetik herriko oraina eta etorkizuna den gaztedia inplikatzeko oso garrantzitsua deritzogunez, zenbait eskolatan txarla edo hizketaldi batzuk egiten hasi gara.

Honen guztiaren berri izango duzue, gainera lokalaren aldaketa gerorako gelditzen denez, badago oraindik zer eta non borrokatzerik.

Orain, batzuentzat azterketa garaiak direnez eta udararen deia gainean daukagunez (beroa, aisialdi gogoa...) ez dira ez garai kañeroenak, baina ze demontre, ez al zarete asper-tuagoak egongo?

IKER BARANDIARAN


• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Iker Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Maider Egües



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Memesa

79 42 22




ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

.....

Kaixo Lagunak!!

Zaila da 15 urte laburtzea, eta are gehiago oraindik idatziz bada. Heriotza, miseria, barrote hauen artean desgertutako kideak, giza instituzio demokratiko honek bere eskutan hiltzen utzi dituenak, izan daitezke beste batzuen artean aipa ditzakendak.

Bata zuria eta arima beltza duten txakur batzuen konplizitatearekin hil, eta hau ixilarazten duten epaileek, horrorei hain lotuak direnentzat, zigorretatik petrale-na ere ez litzatekela nahia-koa izango hauen miseria ordaintzeko.

Hala ere, ez dizuet ezer berririk kontatzen gartzelen inguruan gu beste dakizuenoi. Asteburuetan kilometro luzeak egiten dituzuenoi gure irrifarrerik politena ateratzeko asmoz, gure barnean duguna eta zuei esker loratzen dena. Beti lekutxo bat topatzen duzuenoi gutun, postal zein agurrak bidaltzeko; hauek izanik aurrera jarraitzen laguntzen gaituztenak, gure ametsa lortu ahal izateko.

Eguneroko bizitzan errepresiorik bortitzena jasaten duzuenok gure eskubideak eskatuz, zuenak ere badirenak.

Horrela ba, hemendik, nire zeldaren leihotik, burdinak zabalduz, ene maitasun eta elkartasun guztia bidaltzen dizuet zuen borrokaren omenez.

Etzazue ahaz, beste 15

urtetan ere gurekin konta dezakezuela. Hauxe da gure borrokaren konpromezua, eta horrela eskaintzen dizuet, gaur eta beti, borrokatzen dugunok bakarrik uler dezakegun maitasunarekin.

Garaipenera arte.

Gora Euskadi Askatuta

Gora Euskadi Ta Askatasuna!

**PAKO ROBLES
(VILLABONA)**

.....

Presoen eskubideak

Estatu español nahiz frantsesak presoenganako mendeku gisa, dispertsioan oinarritutako errepresio bidez baliatu izan dira urteetan, euskal presoak beraien aberritik eta senideengandik ahalik eta gehien urrunduz.

Irakasle Eskolako ikasleok beraiekin bat eginik gaudela adierazteko eta guzti hau salatzeo aukeratu dugun bidea mobilizazioa izan da.

Dispertsio honi bukaera emateko eta euskal presoak Euskal Herriratu arte denok batera borroka dezagun.

Euskal Presoak Euskal Herrira!!!

**EDURNE IRAOLA ETA
IRAKASLE ESKOLAKO
IKASLEEN ASANBLADA**

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iriztiak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egiaztatzeo, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da

Zuzenketa

Joan den asteko Txutumtxu batean hankasartze txikitxo bat egin genuen. Izan ere, Musakolako umeen tanborradaren argazkipean Musakolako Herri Eskolak antolatutakoa zela jarri genuen, tanborrada San Frantzisko Xabier Ikastolak antolatutakoa izan arren.

ANBOTO BODEGA

Anzo giro jatorra!

Anboto, 1 behea
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE

AGR Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar

MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE



Jubilatuak ondo tratatuta daude?



Felix Saez de Gordo
Jubilatua
(67 urte)

Bai, ondo, hemen behintzat ezin gara kexatu.



Maribi Azpiazu
Etxekoandrea
(69 urte)

Denetarik egongo da, batzuk besteak baino hobeto moldatzen dira. Nire ustez jubilatuak beraien etxean, baina ondo zainduta egon behar dute.



Esther Garcia
Logopeda
(32 urte)

Nik uste dut baietz, gizarteak ondo tratatzen ditu jubilatuak.



Larraitz Diaz

Uste dut ondo daudela, baina batzuetan egoitzetara eramaten dituzte eta ez dira beraietaz arduratzen.




Rocio del Castillo
Ikaslea
(19 urte)

Kasu batzuetan bai eta beste batzuetan ez dakit. Nik ezagutzen ditudanak ez daude gaizki. Gazteekin konparatuz gero okerrago daude eta egoitzetan dezente alboratuta.




Francisco Javier de Castro
de Castro
Kristaleroa
(28 urte)

Batzuk primeran, baina beste batzuk... autonomoak izan dira, bizitza justua eraman dute eta orain oso jubilazio txikia geratzen zaie.



Juan Lasaga
Jubilatua
(71 urte)

Niretzat bai, laguntza asko daukagu eta nahikoa ekintza antolatzen da guretzat.



Juan Mari Ayastuy
Langilea
(45 urte)

Orokorrean esatea zaila den arren ondo daudela iruditzen zait, behar besteko laguntza izaten dutela.



**Zure OPEL
banatzailea
ARRASATEN,
zergatik joan
urrunago?**

OPEL

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
.....	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

Udalitzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
-----------------	----------

Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
-----------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
------------------------	----------

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 31

Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Larunbata 1

Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

Igandea 2

Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías. Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

Astelehena 3

Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz. Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

Asteartea 4

Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola. Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.

Asteazkena 5

Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin. Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

Osteguna 6

Gaueko 10ak arte: Amezuza. Santamaina. Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.

31 OSTIRALA

• ZINEA

"Moonlight & Valentino" 7etan eta 10etan.

• KONTZERTUA GAZTETXE-AN

Arrasateko Gaztetxean kontzertua gaueko 9etan. Taldeak: Gutariko bat (Hardcore freskoa, Bera-Lesakatik) eta Akauzate (talde esperimental, Azpeitia-Azkoitia-tik).

• ROMEO Y JULIETA AMAIA ANTZOKIAN

Ur antzerki taldearen *Romeo y Julieta* antzezlan Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 1.000 pta eta Gazte Txartelarekin 800 pta.

• AEKanpada

Dimako aireportu zaharrean AEKanpada festa. Ostirale-tik domekara arte iraungo du bilkurak.

1 LARUNBATA

• ZINEA

"Copycat" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• ARRASATE KIROL PROIEKTUA

95-96 ikasturteari bukaera emateko festa antolatu du Arrasate kirol proiektuak. Goizeko 10etan bizikleta mar-txa Aramaia. 12etan sari eta dominen banaketa ltu-ripen.

• ATZERATUEN ASTEA

Arrasate Musikalen ikasturte amaierako kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. SUDCek antolatuta.

2 IGANDEA

• ZINEA

"Copycat" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• ESKORIATZA-ARRASATE KROSA


Eskoriatzatik eguerdiko 12etan irtengo da lasterketa. Hel-muga Arrasateko plazan.

• ATZERATUEN EGUNA

Eguerdiko 12.30etan kalejira eta trikitilariak. 2etan bazkaria Alkartu elkartearen. Arratsal-deko 5etan jaialdia Monte-rronen, Mondragon Brass bandaren laguntzarekin. SUDCek antolatuta.

• MENDI IBILALDIA

Goizeko 9.30etan Bergarako Frontoitik irtengo da Mendi ibilaldia. Hiru orduko irau-pena izango du eta San Martzial-Irurixoa aldean izan-go da. Maltzaga-Urbina autopistaren kontrako ekin-tza izango da. Haran Biziak antolatuta.



KANPOKO LOREN APAINKETA

Ibai Arte elkarteak kanpoko loren apainketa IV. lehiaketa antolatu du. Ez da beharrezkoa izena ematea. Saria emateko orduan bal-ko, miradore eta leihotako edertasuna eta barietatea hartuko da kontuan. Parte hartzeko epea uztailaren 19ra arte egongo da zaba-lik. Hiru sari banatuko dira: lehenarentzat 35.000 pta., bigarren-arentzat 25.000 pta eta hirugarrenak 10.000 pta jasoko ditu

AUTOBUSAK GOSE GREBARAKO

Ekainaren 2tik 8ra Leintz Bailerako 15 lagunek, Senideak elkartearen Artzain Ona-ren katedralean egiten ari den gose greban hartuko dute parte. Hori dela eta autobusak antolatu dira ekainaren 2an, errele-boa egiterakoan, izango diren ekintze-tan parte hartzeko. Autobusa Garibaitik aterako da goizeko 10etan. Izenematea Iratin egin daiteke.

3 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Copucat" 7etan eta 9.30etan.
- **NAGUSIEN ASTEA ITURBI-DE EGOITZAN**
Oihulari Clown taldearen emanaldia arratsaldeko 6etatik 7.30ak arte Iturbide egoitzan.

4 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Copucat" 7etan eta 9.30etan.
- **HITZALDIA MONTERRONEN**
Gaia: "Gure ibaiak zaintzen".
Arratsaldeko 7etan Monterronen. Ibai Alde proiektuak antolatuta.
- **NAGUSIEN ASTEA ITURBI-DE EGOITZAN**
Corazon de Encina eta Al-Andalus taldeen emanaldia arratsaldeko 6etatik 7.30ak arte Iturbide egoitzan.

5 ASTEAZKENA

- **NAGUSIEN ASTEA ITURBI-DE EGOITZAN**
Goikobalu abesbatzaren emanaldia arratsaldeko 6etatik 7.30ak arte Iturbide egoitzan.

6 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"Polvora roja, polvora verde".
Gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Prezioa: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.
- **NAGUSIEN ASTEA ITURBI-DE EGOITZAN**
Goizean Jose M. Astigarraga parrokoaren hitzaldia. Arratsaldeko 6etatik 7.30ak arte Lore Gazteak eta Dultzainarien emanaldia.

NAGUSIEN TANBORRADAN IZENA EMATEA

Nagusien tanborradan parte hartzeko epea zabalik dago ekainaren 3a arte. Horretarako zuzendu Pablo Uranga 4 behean dagoen lokalera arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Ibai Alde proiektuaren erakusketa Monterronen ekainaren 3tik 5era. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8etara.



"ATZERATUEN ASTEA"K EKINTZA AIPAGARRIENAK ASTEBURUAN

Ekainaren 2an domeka, atzeratuen eguna ospatuko da Arrasaten. Eguerdiko 12.30etan hasiko da jaia eta arratsaldera arte iraungo du. Arratsaldeko 5etan Mondragon Brass bandarekin primeran pasatzeko aukera izango dute atzertuek. Jokuak, musika.. denetarik izango dute.

80 URTEKO AITON-AMONENTZAT OHARRA

80 urtetik gorako guztiei gogorarazten diegu datorren ekainaren 24an Udalak herriko aiton-amonei omenaldia eskainiko diela. Bertan parte hartu nahi izanez gero, izena emateko epea zabalik dago. Izena emateko behar beharrezko da nortasun agiria aurkeztea. Udaletxeko idazkaritzan eman behar da izena ekainaren 14a baino lehen.

GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA

AEK-k antolatuta glotodidaktika ikastaroa uztailean edo irailean. Argibide gehiagorako deitu 77 03 69 zenbakira.

“MCC taldeko Danobat enpresaren ordezkariak, Bittor Iñarrak, oso interesgarritzat jo zuen Malasiako inbertsio publikorako fondo garrantzitsuenaren ordezkari-kin izandako bilera, makina-erreminta enpresa bat sortzeko.

Bittor Iñarrak azaldu zuenez bere enpresaren eskaintzan printzipioz teknologiaren ekarpena, formakuntzarako laguntza, eta produktoen kalitatearen jarraipena sartzen da”.

1996-5-19.

EL DIARIO VASCO

“... Juzgadura datorren euszkaldun askok, eskapareteko hizkuntza, eta ez bizitzeko erabiltzen den zerbait moduan aritzen gara: Deklaraziok eragin politikoa badu, euskaraz, itzultzailearekin egin behar delako protestatu, egunkarietara idatzi... baina nire etxeko txanponak jokoan badaude, egunon esaten ere ez dakien Abokatu erdaldun ospetsuaren gidaritzapean. Jakitunagoa omen... (Tolosan hiru urte pasatxo daramat, eta zibil arloko demanda bat ere ez zait euskaraz idatzi etorri).

Nekane San Miguel, 1996-5-26.

Egunkaria

“... Bertsolari izatea ez dut hartzen nire izaeraren definitzailetzat, esparru publikoan ere ez. Gertatzen dena da ez dakidala kazetari naizen ere.

(...) Orain arte neure buruari jarri diot legea: sor zitezkeen lanpostu guztiei uko egin, postu hitzari uko egin eta, beno, nire kontura lan egin. Eta ez naiz orain arte gosez hil. Gertatzen dena da igual noizbait errutina pixka bat sentitzen dudala faltan, buruan desordena gehiegi darabilt. Andon! Egañak esaten duen bezala, okupatuta ez nagoengan, pre-okupatuta nagoela”.

Jon Sarasua, 1996-5-26.

Egunkaria


Zer berri aurtengo Atzeratuen Astean?

Aurtengoa atzeratuen astearen laugarren edizioa da. Hala ere gogoratu nahi nuke, orain dela hama-bi urte hasi ginela atzeratuei zuzendutako eguna antolatzen.

Antolatu ditugun ekintzei dagokienez, aurreko urteetako jarraipen bat direla esan daiteke. Aurten hala ere, berandu hasi gara antolaketa lanean eta horregatik, ekintza gutxiago prestatu dugu. Hori bai, atzeratuak protagonista izatea lortu nahi dugunez, ekintza asko euren egingo dute. Adibidez, zapatuan kontzertua izango da Amaia antzokian, eta Arrasate Musikalen ikasten duten atzeratu batzuek eskainiko dute emaldia. Atzeratuendako oso garrantzitsua izaten da eurei zuzendutako astea, eta urtean zehar aste hori noiz etorriko zain egoten dira.

Orokorrean bi izaten dira atzeratuen astearen helburuak. Batek sentsibilizazioa bultzatu nahi dugu, eta bestetik, herriak gaia hobeto ezagutzea. Nahiz eta alor horretan azken urteotan asko aurreratu, eta atzeratuak onartuagoak dauden, oraindik aurreiritziekin jokatzeko dugu. Horregatik, garrantzitsua deritzogu jendeak gaia ondo ezagutzeari, horrela ideiaz aldatuko dute eta.

Atzeratuei zuzendutako astea batzorde batek antolatzen du. Batzorde horretan gaude Arrasateko Udaleko teknikari batzuk, SUDC, Atzegi, Txatxilipurdi, Gaiteroak, Trikitixa Eskola eta Arrasate Musikal.



Olatz Etxabe
Gizarte Laguntzailea

HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK, 3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA

Errentegarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

MIKEL LASA Aseguru Artekaría, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxe: 77 10 74

BANKINER
A G E N T E A

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute errenteziorik eta Inbertsio Fondoetara gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretarako batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri zehazteko dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

Borroka Eguna

Jarraik deituta borroka eguna egin zen joan den ostiralean Arrasaten. Inguruko herrietako hainbat gaztek parte hartu zuen eguerdian Arrasaten egin zen manifestazioan. Egun horretan ikasleek greba egin zuten eskola gehienetan.

Enrique Pagoaga atxilotu

Igandean Enrique Pagoaga deportatu politikoa atxilotu zuen Belgikako poliziak Bruselako aireportuan. Enrike Pagoaga, Peixotoren anaia, azken zazpi urtetan Venezuelan egon da deportatuta. Arrasateko euskal errefuxiatuak asilo politikoa eskatu du, eta Belgikako Barne Ministeritza eskaera aztertzen ari da. Baliteke erabakia bi hilabete luza-tzea.

“Manteca kojua” Alacanten hil

Juan Manteca Cabañer, 29 urteko arrasatearra, joan den ostiralean hil zen Alacanteko ospitalean hiesak jota. “Manteca kojua” ezaguna bihurtu zen, 1987an ikasleek Madrilen egin zituzten manifestazioetan parte hartu eta bere irudia komunikabide guztietan zabaldu zutelako. Arrasaten ere ezaguna izan zen, gazte denboran herriko txirrindulari taldeko partaidea izan zelako.

Edukiontzia erre


Zapatu gauean Zaldibar ondoko edukiontzi bati su eman zioten ezezagun batzuk. Ohi moduan, Zubillagako suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera.



Peugeot-en aurkako erasoan bi auto kixkali

Maiatzaren 23an, ostegunean, Zaldispén dagoen Peugeot tailerra erasotu zuten, eta ondorioz, bi auto erabat kixkali ziren. Gaueko 11.30ak aldera tailerraren atzealdetik sartu eta erasotzaileek gasolina bota zieten han zeuden auto batzueri ondoren sua emanez. Ondorioz, berri-berriak ziren Peugeot 406 markako bi auto kixkali ziren. Suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera.

Ertzaintzak sabotaiaren inguruko ikerketa zabaldu du.



Ongi etorria Jon Arexolaleibari

Ia hamar urte preso egon ondoren aske geratu den Jon Arexolaleibari ongi etorria egin zitzaion Arrasaten zapatuan. Jende ugari bildu zen Seberon, “Gatxi” ezizenez ezaguna den 32 urteko aramaioarrari ongi etorria egiteko. Ohi moduan dantzariak aurraskua dantza-tu zuten, eta Gatxik lore sortak ere jaso zituen. Ondoren, presoan senitartekoen artean loreak banatu zituen preso ohiak. Ongi etorria bukatu eta gero manifestazioa egin zen presoan Euskal Herriratzea eskatu, eta Juan Jose Etxabe aske uzteko eskatuz. Juan Jose Parisko kartzelan sartu zuten ostiralean.

Adierazpen askatasunaren aldeko manifestua

Arrasateko Ezker Abertzaleak prentsaurrekoa eman zuen astertean, azken hiru hilabeteotan Ertzaintzak izan duen jarrera salatu eta adierazpen askatasunaren aldeko manifestua aurkezteko. Ezker abertzalearen ustez, Arrasateko Ertzaindegira arduradun berria etorri denetik herriko egoerak okerrera egin du. Euren esanetan, orain arte arazo barik egin dira manifestazioak eta beste mobilizazio batzuk, eta Ertzaintzak istiluak zeudenean bakarrik hartzen zuten parte. Presoen, errefuxiatuen eta deportatuen egoera ona ez dela eta, hori salatzeko kalera irtetzen jarraituko dutela aurreratu zuten astertean.

Adierazpen askatasuna garrantzitsua dela eta, horren aldeko manifestua atera du Arrasateko ezker abertzaleak. Luis Pagoagak, Senideak-eko kideak esan zuenez, “gaur egun ezker abertzalearen aurkako errepresioa zabaldu da, baina baliteke aurrerago beste talde batzuren aurkako errepresioa hastera. Horregatik, Arrasateko taldeei eta alderdiei manifestua sinatu eta hori defendatzeko deia egiten diegu”.

JAIOTZAK


- Nerea Isazelaia Salamanca. Maiatzaren 16an.
- Joxe Mari Barrutiabengoa Ortubai. 17an.

EZKONTZAK

- Rafael Varela San Jose eta Marta Gonzalez Calvo. Maiatzaren 25ean. Elizatik.

HILDAKOAK

- Manuel Agirre Zabalza. Maiatzaren 20an. 43 urte.



* Iñaki Gorostidi

Euskara, kultura eta dibertsioaren AEKAnpada

Badakizue astebukae-ran ospatuko dela AEKAnpada, maiatzaren 31tik ekainaren 2ra. Aurtengoa zazpigarren edizioa izango da Dimako Zumeltza izeneko tokian, aireportu zaharrean, "Eguzkeraren euskal kultura egiten eta bizitzen" lelopean burutuko dena. Gauza jakina da AEKren egitekoa ez dela euskara irakastera mugatzen: Euskal Herria berreuskalduntzea dauka helburu, eta horretarako behar beharrezkoa da gure hizkuntza euskaltegiatiko ikasgeletatik atera eta gizarte osora hedatzea.

Bi urtetik behin antolatzen den AEKAnpada hau AEKren ekitaldirik garrantzitsuenetariko bat da; izan ere, hiru egunez euskaraz bizitzeko aukera eskaintzeaz gain mota guztietako ekitaldiak eta ikuskizunak antolatu dira. Euskal kulturaz gozatzeko eta hainbat euskaltzalerekin biltzeko parada ezin hobea daukazu beraz.

Aurtengo edizioa euskal kulturaren topagune izango da, urtean zehar euskaraz egiten den kulturaren adierazpen desberdinak bilduz. AEKk aspaldi esana du Euskal Herria berreuskalduntzeko denon ahalegina behar dela, eta bakoitzak bere alde-tik egiten duen lana eraginkorra izan dadin euskaltzaleok elkartu beharra dugula. AEKAnpada honen bidez, elkarlanaren ideia aldarrikatu ezezik, gauzatzen eta prak-

.....

“Euskal Herria berreuskalduntzeko beharrezkoa da hizkuntza ikasgeletatik atera eta gizarte osora hedatzea”

tikara eramaten ere saiatu da AEK. Azken batean, AEKren eguneroko jardueraren isla da baina ez da AEKAnpada. Eta AEKren lana herri irakaskuntzan, herri dinamikan, lurraldetasunean eta publikotasunean oinarritzen bada, ez da harritzekoa AEKAnpada balore horiek guztiak isladaturik izatea. Euskal Herriko herrialde guztietako kultur-adierazpenek izango dituzte leku eta garrantzi bereziak.

Bi gune izango ditu AEKAnpada: alde batetik kulturagunea, gure kulturaren adierazpen desberdinak bilduko dituena (antzerkia, zinema, bertsolaritza, dantza...). Ikastaroak (sexua, kantua, ipuingintza, txalaparta, bideogintza, eskulanak, graffitia), mahainguruak (euskalgintzaren oraina, irati euskaldunak, pilota atzo eta gaur, literatura sorkuntza gaur...), ikuskizunak (play back, herri kirolak, dantza...)... antolatuko dira gune honetan. Bestalde, musika jaialdiak egiteko karpa egongo da jendea bertan bildu eta Euskal Herriko hamaika talde gozatzea ahalbideratuko duena: Anje Duhalde, Gozategi, Tapia eta Leturia Band, Bizkar Hezurra, EH Sukarra, Lin Ton Taun, Bittor Aiape, Etsaiak, Balerdi Balerdi, Gari, Exkixu, Bap, Su Ta Gar, Txomin eta Urbil Artola... Ikus dezakezue era guztietako musika aurkituko duzue. Honez gain, goizetan esnatze alaitsuak, egun guztian zehar giro ezin hobea eta gauetan martxa izugarria.

Beraz, motxila, lo zakua, kanpin denda eta hiru egunez primeran pasatzeko gogoia baina ez dituzu behar AEKAnpadaren edizio berri honetara etortzeko. Denok gonbidatuta zaudete, ez galdutok aukera! Han ikusiko dugu elkar!

* AEKko IKASLEA

USTEAK USTE

KIROLAK LOKARTZEN GAITU

Astelehen goizean bota zuen galdera bere programan Mariano Ferrer kazetariak: Zer deritzozeu ETBren kirol eskaintzari?

Telefonoa ez zen geldirik egon, eta guztiak bat etorri ziren gehiegizkoa zela esatean. Futbol liga sekula baino luzeagoa izan da, Euskal Bizikleta bukatu berri, boxeoa, Italiako Giroa bizi-bizian egunero, Europako kopa hortxe dago, berandua-ga Frantziako Tourra, Joko Olinpikoak... kirolzaleak eurak, asetzeko baino nazkatzeko moduan beraz.

Kirolak ez dagoenean, berriz, zer eskaintzen du guztiona den telebista euskaldunak? Marrazki bizidunak, Goenkale eta Arralde, errepikapenak, albiste-giak... eta ezer gutxi gehiago. Non geratzen dira kultur saioak, ikerketa edo teknologia berriei eskainitakoak, historia edo literaturari buruzkoak, musikari eskainitakoak, dokumentalak, euskararen ingurukoak...? Programazioaren bazterretan, ordutegi eskasenetan eta oso kopuru murritzean.

Hala ere, azken neurketen arabera, ETBren audientziak gora egin du. Asmatu egin dute, ezin ukatu, kirolez eta telenobelez asetzen den herri bat gara. Marx parafraseatuz aspaldi esaten zidan orain kartzelan dagoen lagun batek: "futbola? el opio del pueblo". Arrazoia duelakoan nago.

BEÑARDO KORTABARRIA

Emendakinak aurkeztu eta hirukoaren aurrekontuak onartzeko plenoa

EAJk, PSE-EEk eta EAK euren egindako aurrekontuak onartzeko dituzte gaur, ostiralean, egingo den plenoan. Era horretan, Arrasatek 96ko aurrekontuak izango ditu.

Onartu aurretik hala ere, HBk eta EBak hirukoaren aurrekontuei egindako emendakinak aurkeztuko dizkiote plenoari. Bi alderdi horiek hainbat diru partida gehitzea edo gutxitzea eskatuko dute. Pertsonal Sailari dagokionez, aldi baterako hiru lanpostu sortzea proposatuko dute:

- Auzoetako Teknikaria
- Ingurugiro Teknikaria
- Kulturako Laguntzailea

Horrez gain, gaur egun aldi baterakoak diren lanpostuak finko egitea:

- Peoia
- Emakume saileko dinamizatzailea
- Parke zaintzailea
- Zurgina
- Monterrongo administrari laguntzailea
- Iturbide Egoitzako administraria
- Menpeko langilea

Bestalde, bi bekaduni kontratua aldatzea, eta gazte informatzaileari lan jarduna luzatzea proposatuko dute.

Emendakin batzuk subentzietan

• Korporazioko argitalpenak.....	500.000 pta	gehiago
• Uretako Zerbitzurako erosketak	1.000.000 pta	"
• Kulturako dirulaguntzak.....	1.851.000 pta	"
• Zentru psikogeriatrikorako aportazioa.....	1.620.000 pta	"
• Euskararako dirulaguntzak.....	2.819.000 pta	"
• Udal azoka sustatzea.....	1.000.000 pta	"
• Gazteriaren ekintzak	1.180.000 pta	"
• Udal Liburutegi teknikorako erosketak	300.000 pta	"
• Liburutegiko ekintzak	25.000 pta	"
• Osasunaren ekintzak	326.940 pta	"
• Kulturaren ekintzak	360.000 pta	"
• Bideotekako erosketak.....	190.000 pta	"
• Irratirako erosketak	100.000 pta	"
• Gazteriako korrespontsalak	256.000 pta	"
• Hezkuntzaren ekintzak.....	180.000 pta	"
• Euskararen ekintzak.....	175.000 pta	"
• Arantzazuko Santutegirako aportazioa	100.000 pta	gutxiago
• Bide publikorako seinaleak erostea	1.050.000 pta	"

Emendakin batzuk inbertsioetan

• AUKEAren inbertsioak	10.000.000 pta	gehiago
• Uribarriko Zahar Etxea.....	30.000.000 pta	"
• Alde zaharreko planerako inbertsioak	10.000.000 pta	"
• Ondare-ondasunak erostea (lokalak.....)	60.000.000 pta	"
• Garapen ekonomikorako	30.000.000 pta	"
• ARKOrako dirulaguntza eta inbertsioak.....	2.000.000 pta	"
• Garraio publikoa	5.000.000 pta	"
• Zerbitzu-sareak	5.000.000 pta	"
• Lurzoru industrialia erosteko	120.000.000 pta	gutxiago
• Parrokiarako dirulaguntzak	25.000.000 pta	"

Batera prestatu dituztenez gain, HBk emendakin bakarra aurkeztu du eta EBak bost. HBk Mojategirako 30 milioi pezeta ematea eskatuko du. EBk, berriz, Ferixalekuko frontoirako dirulaguntza eman aurretik ikerketa egitea, hirugarren mundurako laguntzak gehitzea, eskola pribatu eta publikoei laguntza berdina ematea, bost udaltzain ez kontratatzea eta San Andreseko konserjearen postuari eustea.

Hirukoak behin eta berriz azaldu duenaren arabera, gastuei eusten ahalegindu dira aurrekontuak egitean, eta horregatik, ohiko laguntzetan ez dute diru partida gehitu. Gainera, lur industrialia erosteko 120 milioi zuzendu dutenez, hainbat partidetatik laguntzak kendu behar izan dituztela esan dute.

Ino Galparsoro, Hazienda Batzordeburua, esandakoaren arabera, oposizioaren aurrekontuekin gobernatu behar izan arren, euren proiektuak aurrera eramaten ahaleginduko dira. Bestalde, aurrez ere HBk gustokoak ez zituen aurrekontuekin lan egin behar izan duela adierazi du.

Plenoko beste gai batzuk

• Antimilitaristen mozioa

Arrasateko Udala Eudiman (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatean) sartzeko helburuz Talde Antimilitaristak aurkeztu duen mozioa aztertuko du plenoak. Mankomunitatean Gipuzkoako hainbat herri parte hartzen dute, intsumisioa bultzatu eta intsumisioei ahalik eta laguntza handiena emateko helburuz.


Mozioak aurrera egingo du orain dela bi urte bezala, intsumisioaren aldeko mozioa aztertu zenean, EAK aldeko botoa ematen badu.

• EB-aren errekurtsioa

Orain dela hilabete errekurtsioa jarri zuen Ezker Batuak, Enpresa Berritzaileen Zentruaren jarraipena egiteko hirukoak eratu zuen batzordearen aurka. Asanbleari batzordeari buruz galdetu ostean jarri zuen errekurtsioa EBak. Gaurko plenoan, errekurtsioa tartekarri duela jakinerazi behar zuen.

• Dirulaguntzen arautegi berria

Arrasateko Kirol Elkartei dirulaguntzak banatzeko, AUKEAk eta kirol taldeek egin duten arautegi berria onartzeko da plenoan. Hemendik aurrera, kriterio batzuen arabera banatuko dira dirulaguntzak. Taldean zenbat federatu dauden, zein kategoriatan dagoen eta zein ekintza egiten duten kontuan izango dira besteak beste. Horrez gain, urteroko ekintzetarako ezezik urtean zehar egiten diren ekintza berezietarako ere laguntzak emango ditu AUKEAk.



Inguruko bideak konpondu behar direla baina autopista ez dela beharrezkoa uste du Haran Biziak.

Mendi ibilaldia autopistaren bideari jarraituz

Haran Bizia taldeak mendi ibilaldia antolatu du Urbina-Maltzaga autopista eraikitzeak ekarriko lukeen "hondamena" aztertzeko. Mendi irteera domekan egingo da, eta oraingoan Bergarako San Martzial-Iurixio inguruak ikusiko dira. Ibilaldi honetan parte hartu nahi dutenek, goizeko 9.30etarako Bergarako frontoian egon beharko dute.

Ibilaldia iragartzeko Haran Bizia taldeak kaleratu duen oharrean, administrazioak eta enpresa eraikitzaileek autopista egiteko benetako asmoa dutela esaten da. Gainera, azpiegitura handiak egitean ingurugiroa ez

dela kontuan izaten aipatzen dute. Haran Biziaren ustez, gure gizartean automobilaren kultura oso errotuta dago, eta horregatik, pasibitatea alde batera utzi eta egoeraren aurrean zerbait egin beharra dago. Era berean, inguruko azpiegiturak hobetu behar direla onartzen dute, baina ez dute autopista egiteko beharrik ikusten. Autopista egiteak dirua alferrik galtzea esan Nahi duela uste du Haran Biziak.

Oharraren bukaeran, ibilaldian parte hartzeko gonbitea egiten die bailarako etorkizunaz kezkatuta dauden guztiei. Aurrez ere hainbat irteera egin dute.

Mankomunitateak aurrekontuak onartu

Mankomunitatearen 96ko aurrekontuak onartu ziren asteazkenean Bergarako Udaltxean egin zen bileran. Aldaketa proposamenen aurkezteko aukera bazegoen ere, bileran izan ziren 14 kideek ez zuten aldaketarik proposatu. Aurrekontuak onartzean hala ere, abstentitu egin ziren HBko bi ordezkariak, Xabier Zubizarreta eta Luis Mari Errasti. Xabier Zubizarretak esan zuenez, aurrekontuei bizitasun gehiago eman behar zaie, eta Mankomunitateak alor berriak jorratu behar ditu. Bozketarik egin ez zen arren, gainontzeko kideak alde azaldu ziren.

Azatzako horma indartu

Uharkapeko mendi magala mugitzean Azatzako etxebizitzetako horma ere mugitu egin zenez, orain horma hori indartzeko lanak hasiko dira.

Udalak 9.581.129 pezetan gastatuko ditu Jose Luis Iñarrako horma indartzeko.



udako
euskal
unibertsitatea

XXIV. UDAKO IKASTAROAK

BAIONA: uztailak 1-6
IRUÑEA: uztailak 15-27

Matrikula zaitezke maiatzaren 27tik aurrera!

ARGIBIDEAK: UEU, Concha Jenerala, 25-6. BILBO. Tfnoa: (94) 421 71 45
UEU, 37 Pannecau karrika. BAIONA. Tfnoa: 592 577 54



1995ko gestioaren berri emateko prentsaurrea eskaini zuten Korporazioko arduradunek.

Mondragon Korporazioa kanpoko merkatuei begira

Barruko merkatuan duten salmenta kuota nahiko handia dela eta, Mondragon Korporazioak atzerriko merkatuetan jarri du ikusmira. Era horretan, 2.000garren urterako salmenten erdia esportazioen bidez lortu nahi du MCCk. Salmenta kopuru horretara iristeko inbertsioak egingo dituzte atzerrian, eta lau urte barru 30 izango dira kanpoan jarriko dituzten lantegiak.

Korporazioaren internazionalizazioa aipatu zuten MCCko arduradunek iazko urtearen balantzea egitean. Prentsaurrean azaldu zuten, zergen aurreko irabaziak 37.886 milioioak izan ziren iaz, eta inbertsioen era-

ginez 1.960 lanpostu berri sortu zituzten. Korporazioko talde guztien iharduera positiboa izan bazen ere, banaketa taldean Eroskik izandako jarduera bikaina azpimarratu zuten. 96ari begira, berri, irabaziak handitzeaz gain 1.000 lanpostu berri sortzea espero dutela aurreratu zuten. Lanpostu gehienak banaketa alorrean eratuko dira.

Burtsan inbertitzen hasteko dituzten asmoei buruz, MCCko lehendakariak pazientzia eta denbora eskatu zuen. Cancelloren esanetan, ezertan hasi baino lehena go ziur egon nahi dute ez dutela ezertxo ere arriskatuko.

Arrasateko Alkatea atxilotzeko agindua

Bilboko Epaitegi Gorenak Arrasateko Alkatea epaitu behar duela eta, epaileak Alkatea atxilotzeko agindua eman dio polizia judizialari. Aurrez ere birritan jaso du Zubizarretak epaitegira azaltzeko deia baina uko egin dio, eta horregatik, atxilotuta eramateko agindua eman du epaileak. Gaurko, ostiralera, zegoen Xabier Zubizarreta deklaratzera deituta baina lerrook idazterako orduan oraindik ez zen polizia Zubizarreta atxilotzera azaldu.

Arrasateko Udalak 94az geroztik ejerzitoarekin kolaboratzen ez duela eta epaituko dute Alkatea. Intsumisioaren aldeko mozioa Alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zen Arrasateko Udalean. HB, EA eta Aitor Orongoa mozioaren alde azaldu ziren, eta PSE-EEK eta EAJk aurka bozkatu zuten.

Hasieran, Alkateak Bergarako epaitegian deklaratu beharko zuela uste zen. Ondoren, Zubizarreta parlamentaria denez, Bilboko Epaitegi gorenera pasatu zen auzia.



AKELARRE

Gozotegia

ORAIN AKELARREN
GOSARIAK GOIZEKO
7.30etatik AURRERA!

JAUNARTZE TARTA
Detaile batzuk
garrantzi handia
dutelako.



Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE




Itziar Martinek eta **Oihana Garciak** Santamainako Ludotekak haur liburutegiarekin batera ateratzen duen *Gora-Berri-Behera* aldizkariko azken zenbakia ekarri ziguten. 200 ale kaleratu dute eta berehala saldu dira 50 pezetaren truke. Arrakas-tatsua beraz Santamainako ludotekako neska-mutilek egiten duten lana.



Al-Andalus elkartea kultur astean murgilduta egon da astelehenetik domekara arte. Zazpi egun horietan ez aspertzeko moduko egitaraua izan zuten Arrasateko anda-

luziarrek. Futbol neurketak, dantza saioak, poesia emanaldiak eta mus txapelketak ere bai. Argazkian agertzen diren lagunak mus txapelketako irabazleak dira. Zorionak!



Udalako Ingurugiro Eskolak, Deba Garaiko Mankomunitatearekin batera "Zaborraren problematika aztertzeko" kanpaina jarri zuen abian eta kanpaina horri bukaera emateko lehia-keta bat antolatu zuen. 50 urte barru..zer? lemaren inguruan OHoko 6. mailako 700 neska mutilek aurkeztu zituzten lanak eta irabazlea **Jonatan Cruz** izan zen, motxila ekologikoa berarentzat.a

Gasteizko AEKn euskaraz ikasten ari dira argazkikoak eta euskara hutsean lan egiten duen komunikabide bat ezagutzeko ARKOra etorri ziren. **Arrasate Press eta Telebista ikusten pasa zuten goiza.**





52eko kintoek egun berezia izan zuten zapatuan. 20 bat lagun eguerdiko ordubatean elkartu zen San Frantzisko elizan hildako kintoen alde meza entzuteko. Ondoren txi-

kiteoa eta 2.30ak aldera Musakolako Hostalean bazkaria. Makina bat kontu eta istorio entzun eta esan ondoren, bukaera eman zioten 52ko kintoen egunari.

IZEN PROPIOAK

- **Felix eta Alberto Iñurrategi**, 28 eta 27 urteko mendizale atxabalta-rrek National Geographic saioa aurkeztuko dute ETBn. Uztailean hasiko da mendiari eta abenturari buruzko saio berria. Anai bientzat lehen esperientzia izango da telebistako aurkezle lanetan.
- San Juan jaietako tanborradan generala **Oxel Rollo** izango da. Ikurriña **Maidier Agiriano**k eramango du. SUCDeko bandera **Lydia Alonsok** eta Arrasateko bandera **Amaia Carrillo**k.

SUDCek eta Udalak antolatuta jubilatuen eguna ospatu zen zapatuan. 12.30etan San Juan elizan meza entzun ondoren, jai giroan joan ziren herriko jubilatuek Musakolako kiroldegira bertan zuten bazkari gozoa dastatzera. Bazkalostean herriko aitona-amona zaharrenek sari berezia jaso zuten. **Josefa Vazquez** 98 urterekin amona zaharrena da. **Luis Ayala** berriz, aitona zaharrena eta 89 urte ditu.



PARDO estetika zentrua

ARGIZARIZKO DEPILAZIOA

10 saiogatik orain 1 dohan


Iparragirre Enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎ 79 52 17 ARRASATE

**EGUERDIETAN
ERE
ZABALIK!**

SOLARIUMA DUTXAREKIN



Gertatu zure azala lehenengo eguzki-izpiak hartzeko.



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...

Etxe-Aundi

Torrauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



**Dagoeneko
zabalik dago
Etxe-Aundiko
hotela.**

**Zatoz
ezagutzera!**

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Finalak*
- *Emaitzak eta Sailkapenak*
- *Protagonista:*
Inaxio Garro



Argi Ibilik batetik eta Cervecería Leintzek bestetik jokatuko dute aurtengo finala zapatuan. Txapelketako talde onenak edo une erabakiorretan nagusitasun gehien erakutsi dutenak heldu dira Zaldibar Txapelketako azken txanpara. Denboraldian

zehar makina bat izerdi bota eta gero, erreallitate egin dute euren asmoa, finala jokatzea alegia. Orain azken erronka falta zaie, zein den onena erakustea zapatuko partiduan. Argi Ibiliren beterania edo Cervecería Leintzen irabazteko gogoia, zein nagusituko da? Batek daki!

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktoa

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

AMABET

LABORE ETXEA

- Gurutze puntuak (Kit prestatuak)
- Petit-point eta Bolilloa
- DMC ariak (koloreen gama guztiak)
- Arizko tela, Panama

Kalebarria, 49 • OÑATI • Tfnoa: 78 04 84



XX



Argi Ibili 4 Okoretegi taberna 2

Final erdietako lehen partidua jokatu zen zapatuan. Argi Ibili eta Okoretegi taberna izan ziren nor baino nor. Neurketa pil-pilean egon zen azkenera arte. Lehen gol aukera arrisurtsuan Argi Ibiliko Txema Elizanarek aurretik jarri zuen taldea. Gol bateko aldeak ez zuen asko iraun, Mazaren jaurtiketaren bidez berdinketa etorri zen. 2 eta 1koa Fede Aranbarrik igo zuen markagailura eta hirugarrena berriro Txemak. Okorotegiren bigarren gola ez zuen taldeko jokalaria batek sartu, Argi Ibiliko Bakak bere atean sartu zuen eta. Bukatzeko minutu gutxi faltan berriro zulatu zuen Argi ibilik aurkariaren atea. Golegilea Bunder izan zen.



Adelaida Haizea 1 Cerveceria Leintz 1

Domekan ere emozioa eta tentsioa izan ziren protagonista Zaldibarren. Lehen gola Adelaida Haizeako Alfonsok lortu zuen falta baten ondoren. Cerveceria Leintzekoek berriz, ez zuten amore eman eta Ferminen bidez berdinketa etorri zen. Banako berdinketarekin bukatu zen neurketa. Hori hausteko luzapen minutuak jokatu zituzten baina inor ez zen markagailua mugitzeko gauza izan. Egoera ikusita penaltietara jo behar derrigorrez. 12 penalti jaurti ziren guztira. Hasieran talde bakoitzak bost jaurti zituen. Adelaida Haizeatik Jon, Juanjo eta Alfonsok sare barruan utzi zuten baloia. Garro eta Josebak ez zuten asmatu. Cerveceria Leintz taldean Fermin, Nando eta Jabik asmatu zuten bitartean, Iñakik eta Mikel Hierrok kale egin zuten. Berdinketa berriro. Hurrengo penaltia Adelaidako Santik jaurti eta atezainak gelditu. Cerveceriaren txanda, Dionik barrura eta horrela bukatu zen partidua.

Hurrengo partiduak

FINALAK

Ekainak 1

Zaldibar

3. eta 4 postuak

16.00 Adelaida Haizea - Okoretegi taberna

FINALA

17.00 Argi Ibili - Cerveceria Leintz

Finalerdietako emaitzak

Argi Ibili 4 - Okoretegi Taberna 2

Adelaida Haizea 1 - Cerveceria Leintz 1 (Penaltietan 3-4)

Protagonista**Inaxio Garro
(Adelaida Haizea)**

— **Cerveceria Leintzen kontra jokatu zenuten eta penaltietan ezin irabazi, neurketa gogorra?**

— Oso partidu orekatua izan zen. Dena dela uste dut txapelketan erakutsi dugun maila ez genuela eman. Bazu ibili ginen bi arrazoiengatik: batetik ez geundelako inspiratuta eta besterik aurrean zegoen taldea Cerveceria Leintz zelako, talde sendoa. Jokoari dagokionez Cerveceriakoe partiduaren erritmoa eta inizatiba eraman zuten. Hala ere, atera begira gol aukerak berdintsuak izan genituen.

— **Argi ibili eta Cerveceria Leintz, final ona?**

— Finalera heldu badira zerbaitegatik izango da. Nolanahi ere uste dut Cerveceria Leintz taldeak beste merituekin dugula. Penaltietan kale egin ez bagenu orain finala jokatzeko egongo ginateke.


— **Prestakuntza berezirik egin duzue partidurako?**

— Ez, beste partidu batera moduan joan ginen, irabazteko gogoz baina lehen ihardunaldiko lehen partiduan ere gogo horrekin kantxaratu ginen.

— **Harmailetan zer giro?**

— Kantxan zaudenean ez zara ohartzen zer gertatzen den harmailetan. Giroa kanpoan bizi da. Barruan berriz, nahikoa lan izaten dugu baloiaren atzetik joaten, jokuan sartuta egoten gara buru belarri.

— **Zure lehen urtea da Zaldibarren. Zelako esperientzia izan da?**



— **Gazigozoa zergatik? Gazia neure helburua eta baita taldearena ere lehen postuan geratzea zen eta ez dugu lortu, kirol mailako helburua beraz ez da lortu. Gozoa ondo pasatu, kirola egin eta lagun asko egin dudalako**

— **Zuzendu beharreko arazoa Zaldibarren?**

— Epaileena hobetu beharreko erronka da nahiz eta hori zuzentzea ez izan batere samurra. Lehen fasean arbitraiak konpromezukoak izaten dira. Taldeok arduratzen gara eta epaileak orohar nahiko pasiboak direla esan behar nahiz eta jarrera txarrik ez izan. Antolatzaileek jartzen dituzten epaile batzuek beste horrenbeste esan behar. Ez dira pasiboak eta gogoia jartzen dute baina batzuek ez dute futboleko araudia ezagutzen eta euren ahalegin dena ezezean geratzen da. Argi utzi nahi dut gurata ez dutela egiten baina arauak ez badituzu ezagutzen ezinezkoa da ondo epaitzea. Bestalde onartu behar da eurek barik ez zela txapelketarik izan-

go. Dena dela, borondatea ez da nahikoa, gehiago eskatu behar da.

— **Beste zerbaitek harritu zaitu?**

— Bai, talde batzuk futboleko egitera baino ez dakit zertara kantxaratzen diren. Denon helburua irabaztea bada ere, aurrean beste pertsona batzuk daudela kontuan izan behar duzu eta errespetoa merezi dutela ez ahaztu.

— **Futbol jokalaria batenzat futbitoan aritzea oso desberdina da?**

— Futbitoan azkarrago jokatu eta azkarrago pentsatu behar da. Futboleko baino gehiago inprobisatu behar duzu. Aldea badago.

— **3. eta 4. postuan Adelaida Haizea Okoretegi aurrez aurre, zer gerta daiteke?**

— Okoretegi oso talde serioa da. Atzean ondo dabil eta jokalariek badakite zer egin behar den. Garaipena zail ikusten dut baina txapelketan erakutsi dugun mailarekin jokatzeko gero irabaziko dugulakoan nago.

Labur**JOKALARI
NABARMENAK**

Urtero moduan, aurtur ere Zaldibar txapelketako jokalariek nabarmenenek sari berezia jasoko dute. 95-96 denboraldiko sarituak honako hauek izango dira: David Zaitegi eta Unai Idigoras Irati STS, Igor Carrillo DKB, David Martinez Kamasutra, Txema Naranjo Cerveceria Leniz eta Iñigo Agirre Aurrea Bolie. Bestalde, Zaldibarko jokalariek eta hil direnen omenez lau plaka banatu dituzte antolatzaileek. Plakak Juan Antonio Bolinaga, Santi Boisa, Juan Garai eta Emilio Sagastaren senitartekoei jasoko dituzte.

**SANTI BOISARI
OMENALDIA**

Cerveceria Leintzekoek ezbeharrezko istripuan hil zen Santi Boisari omenaldi beroa egingo diote ekainaren 8an arratsaldeko 5etan Zaldibarren. Txapelketako konbinatu batek Santiren taldekideen kontra neurtuko ditu indarrak. Konbinatua jokalariek osatuko dute. David Irati STS, Haritz Gabelas, Txomin Okoretegi Taberna, Entxo AC Surcos, Onandia Petroleros, Txutxi Trikiti, Juanito Fosforos, Txema eta Teri Argi Ibili, Gil Kamasutra, Santi Adelaida Haizea, Antonio Totem, Baltzi izpun Bila eta Alex Sortu Informatika. Epailea Unai izango da.

FINALEKO EPAILEAK

Zapatuan arratsaldeko 4etan 3. eta 4. postuak erabakitzeke neurketa jokatu da Zaldibarren. Epaile lana Andoni Zurbanok beteko du. 5etan berriz, final handia jokatu da, partidu erabakior hori epaitzeko ardura Haritz Azkarragak izango du.

Uribe Auzoko Futbito Txapelketa

A taldea

La mosca Gao 4 - Egocentricos 5
 Hirei 3 - Los Urracas 2
 The Barrio 1 - Pasteleria Papur 0
 Killer Barbies 0 - Zipote Nukleico 1
 Kamasutra Promesak 0 - Patxi eta Txapi 1
 Zutari 1 - Creature Feature 0

B taldea

Arrasate Zoo 8 - Eight 5
 Amo Katxis 2 - Ganba al Whisky 3
 Decima Victima 1 - Pobres Rangers 8
 Nuevo taberna 6 - Rayo Batikano 2
 Manchester Fumaited 4 - Elisabeth 1
 Ale Alee 1 - Kamasutra 0

D taldea

Zigarrola Mutilzaharrak 5 - Mikel Lasa Aseg 4
 Bortxitxak 6 - Borrock Roll 7
 Tandem 1 - Cartonajes Igamo 10
 Diego Antonio 3 - Betrayer 5
 Gallinero 7 - Zurt 3
 Power Rangers 5 - Jaleo Bila 3

E taldea

Nahiz eta Gure 0 - Blind 1
 Pier Nodoiuna 1 - Beluga 14
 Borrock Roll 0 - High Society 1
 Racing Molotov 3 - Ganbelas 1
 Koka Juniors 0 - Balon Rojo 1
 Euskal Supporters 6 - Joseba Kont 5

F taldea

Potrosorri 2 - Leya 6
 Cheer Readers 3 - Munar txiki 5
 Lautherbrunen 3 - Interlaken 5
 Dribling 7 - Uglys Txinato 3
 L Tropikana 4 - Baneuko 5
 Arsenal DHD 3 - Malpikas 16

URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK

Final Zortzirenak

Larunbata 1

Iturripe A

10.00 Racing Molotov - La Mosca Gao
 11.00 Zutari - Eight
 12.00 Betrayer - Hirei
 13.00 Diego antonio - Malpikas

Iturripe B

10.00 Uglys Txinato - Joseba Kont
 11.00 Nuevo Taberna - Cartonajes Igamo
 12.00 Pobres Rangers - Balon Rojo
 13.00 Dribling - Beluga

Uribe auzoko sailkapena

A taldea

Zutari19
 Hirei.....17
 La Mosca Gao15

Patxi eta Txapi15
 The Barrio14
 Los Urracas12
 Kamasutra Prom10
 Egocentricos9
 Zipote Nukleico7
 Creature Feature6
 Killer Barbies6
 Pasteleria Papur 0

B taldea

Nuevo taberna20
 Pobres Rangers20
 Eight16

Decima Victima14
 Arrasate Zoo14
 Amo Katxis10
 Ganba al whisky9
 Ale Alee8
 Elisabeth8
 Manchester Fumaited ...5
 Kamasutra4
 Rayo Batikano1

D taldea

Betrayer18
 Diego Antonio16
 Cartonajes Igamo15

Zigarrolako Mutilzaharrak13
 Power Rangers13
 Jaleo Bila12
 Bortxitxak11
 Gallinero9
 Barrock Roll Prom8
 Tandem7
 Zurt5
 Mikel Lasa Aseg1

E taldea

Racing Molotov19
 Balon Rojo19
 Beluga17
 Joseba Konte15

Euskal Supporters13
 Ganbelas12
 High Society7
 Blind7
 Koka Juniors6
 Nahiz eta Gure6
 Borock Roll4
 Pier Nodoiuna0

F taldea

Dribling18
 Uglys Txinato18
 Malpikas18

Munar Txiki15
 Leya14
 Potrosorri11
 Baneuko10
 Lautherbrunen9
 L Tropikana9
 Interlaken5
 Cheer Readers3
 Arsenal DHD2

Nesken Futbito Txapelketa

Emaizak

Shaktale 1 - Izenbakuak 2
 Joixon Bertan 1 - Zeppaesstandon 2
 • Lehengo partiduan arazo ugari epailearekin.

Hurrengo partiduak

11.00 Joixon Bertan - Shaktale
 12.00 Zeppaesstandon -Izenbakuak

Sailkapena

1- Izenbakuak
 2- Shaktale
 3- Zeppaesstandon
 4- Joixon Bertan

Lehen Jaunartzea

Fedea, ilusioa eta kontsumoa

Maider Egües

Neska-mutikoentzat bizitzako egun pozgarriena bat izaten da Jaunartzearena. Egun horretan euren jantzi ponpoxoak soinean jarri eta elizara abiatzen dira Jainkoaren gorputza lehen aldiz hartzera. Elizatik irten eta gero, opari zaparrada etortzen zaie gainera eta igande osoan zehar, familiako protagonista bakarrak izaten dira. Egun pozgarria bai baina baita gastuz betetakoa ere. Arrasateko hiru katekistek kontatzen dutenez, Jaunartzeen zentzu erlijiosoa asko galdu da.

Arrasateko beste emakume askok bezala, Mari Carmenek, Mariasunek eta Pilarrek urte piloa daramate katekesira doazen umeak Jaunartzerako prestatzen, bederatzita batz besterik. Denbora horretan guztian ume askoren Jaunartzeen lekuko izatea tokatu zaie eta Mariasunek ez du ukatzen malko bat baino gehiago erori zaiola bere umeak Jainkoaren gorputza lehen aldiz hartzen ikusi dituenean.

Bestalde, Mariasunek ezin uka dezake ere, Jaunartzea egin eta gero katekesi ikasle izan dituen ume asko ez direla bere klase-
ra bueltatzen, Jaunartzea

egin eta gero katekesia amaitzen ez den arren.

Katekesiak sei maila ditu eta Jaunartzea hirugarrenean egiten da, 8-9 urterekin, umeak eskolan 3.

mailan daudenean. Ordura arte guraso gehienek ez dute arazorik izaten eskolaz kanpo umeek duten ekintza agenda
potoloaren barruan kate-



kesirako txoko bat aurkitzeko, are gehiago, erraz uzten dituzte alde batera eskolaz kanpoko beste aktibitateak.

Hala dio Pilarrek, San Juan parrokian katekesiak ematen zazpi urte daramatzan emakumeak: “umeek Jaunartzea egin eta gero oso zaila izaten da katekesi ordutegia finkatzea. Umeek gauza asko egiten dute: solfeoa, ingelesa, kirolak... eta ez dute katekesirako ordutegi apropos bat aurkitzen. Katekesiko 3. mailara arte berriz, ez da inolako arazorik egoten ordutegiarekin, katekesia, eskolaz kanpoko ekintza zerrendaren barruan lehenengo postuan egoten da. Zergatik? Jaunartzea “egin beharreko” gauza bat delako. Jaunartzea egiten dutenean berriz, askok katekesira etortzeari uzten diote”.

Hiru katekistek penaz egiten dute fenomeno honi buruzko gogoeta, Jaunartzeak duen zentzua galdu dela ikusten dute eta.

ZENTZU ERLIJIOSOA

Atzera begirada bat botaz gero eta duela urte batzuetako Jaunartzeak gogoratu, oraingoan aldean desberdinak zirela esatea ez da gezurra. Bazuten oraingoan antza, ospakizunaren inguruan egiten zen festa, elizkizuna bera eta umeen jantzi politak adibidez, baina barrenean desberdinak ziren. Benetan ospatzen zena eta senideak eta gurasoak alai jartzen zituena, umeak Jainkoaren gorputza lehen aldiz hartu izana zen. Orainera bueltatuz, Jaunartzearen esanahiak berdina izaten jarraitzen duen arren, Jaunartzearen zentzu erlijiosoa askok ahaztu egin duela esan daiteke.

Zera dio Mariasunek: “Euren etxean kristautasunari buruzko hitz bat bera ere entzun ez duen ume asko etortzen da katekesira. Gainera, umei euren etxean katekesiari buruz zoezer esan die-



ten galdetzen diegunean, “ez” erantzuten dute askok. Badi-rudi gurasoek konfidantza handia daukatela euren umei erakusten diegunaz”.

Bestalde badira oso guraso kontzienteak ere eta umei, Jaunartzea egin eta gero, katekesian jarraitu arazten dizkietenak. Katekistek, Jaunartzearen eguna heldu baino lehen, bilerak antolatzen dituzte gurasoak informatzeko eta bada bilera horietara beti joaten den jenderik zein gutxitan joaten denik. Alde horretatik, Mari Carmenek esaten duenez, “gurasoak oso lanpetuta daudela ikusten dugu, ez dute ezertarako denborarik izaten eta katekesian bilerak antolatzen ditugunean ez dira guztiak etortzen”.

GASTUA EBITATU NAHI

Jaunartzeek diru gastu handia ekartzen dute, geroz eta handiagoa baina horrek ez ei ditu familia gehienak arduratzen. Hori ekiditeko katekistek bilerak egiten dituzte gurasoekin Jaunartzearen inguruko presaketetan diru asko gastatu ez dezaten aholkatzeko. Dena dela, alperrikakoa da ahalegin hori. Katekistek Jaunartzearen benetako zentzua gogorazi eta diru asko gastatzeak zentzurik ez duela aldarrikatu arren, galdutako borroka da hori. Mariasunek esaten duenez, “oso zaila da zirkulo horretatik irtetzea, denok sartu gara eta. Gainera, seme bati halako Jaunartzea egin badiote, ez diote besteari gutxiago egingo! Diru asko gastatu ez deza-

ten bilerak egiten ditugu baina alperrik da. Gizarteak sortu duen muntaia kontsumistak hor jarraitzen du, ez dago hausterik, nahiz eta gu beste zentzu bat ematen ahalegintzen garen”.

Soinekoa, argazkiak, opariak, jatetxea... dirutza handia gastatzen da gauza horietan. Neskatoen jantziari dago-kionez, azken urteetan soineko txuria eta luzea baino ez dute eramaten. Horiek 30.000 eta 45.000 pta. arteko prezioa izaten dute. Mutikoaren jantziak, mariñelarenak adibidez, 13.000 pta balio du. Jantziak gain, zapatak ere erosten zaizkio Jaunartzea egin behar duen umeari.

Umei egiten zaizkien oparien artean, bitxiak dira gares-

tienak eta gehien oparitzen direnak. Bitxigile batek dioenez, pultserak, eraztunak, kataiak eta medailak, belarritakoak eta erlojuak saltzen dira batipat Jaunartzeendako. Bitxi garestiena kataia eta medaila edo txapa izaten da, 30.000 pta. inguruko prezioa izaten dute eta bitxikeria moduan, amapuntako eta aitapuntakoei oparitzen dituztela aipatu behar da. Pultserak adibidez, 15.000 pta inguru balio izaten dute eta hortik behera eraztunak, belarritakoak eta bestelako bitxiak daude. Jaunartzeetan oparitzen den beste gauza bat, argazki makina izaten da. Dena dela, umeek garai horretan izaten duten adina dela eta, argazki makina sinpleak oparitzen zaizkie, 10.000 pta. ingurukoak.

Bideo kontsolak, walkman-ak eta irati-kassetak umeen artean harrera ona izaten duten opariak dira. Era hone-

tako produktuak saltzen dituen dendari batek, bideo kontsolak 6.000tik 20.000 pta. artekoak izaten direla eta neskentzat zein mutilentzat saltzen direla esaten du. Dena dela, orain CDA duten irati-kassetak gehiago saltzen ei dira Jaunartzeetarako.

Jaunartzeen gastua asko handitzen duen beste gauza bat estudioko argazkiak dira. Hemen ere prezio desberdinak egoten dira baina batzaz beste, zortzi argazkiko albumaren eta 12 oroigarriren prezioa 14.000 eta 16.000 pta. artean ibiltzen da. Hortik gorako prezioak ere egoten dira, beti ere, bezeroaren arabera.

Gonbidatuen arabera jate-txeko gastua desberdina izaten da. Inguruko bi jatetxetako arduradunek diotenez, badira 20 laguneko jaunartzeak baina baita 60 ingurukoak. Menuen prezioak 3.500tik 7.000 ptara ibiltzen dira.

“Gurasoak oso lanpetuta daudela ikusten dugu, ez dute ezertarako denborarik izaten eta katekesian bilerak antolatzen ditugunean ez dira guztiak etortzen”



“154 umek egin dute aurten Jaunartzea Arrasaten. Oraindik beste 31ak egingo dute”

BIZITZAKO EGUNIK POZGARRIENETARIKOA


Opariak direla, Jainkoaren gorputza lehen aldiz hartzeak sortzen duen poza dela edota umeek egun horretan hartzen duten protagonismoa dela eta, Jaunartze eguna umeen bizitzako egun pozgarrienetarikoa bat dela esan daiteke. Zapatu gauean loak hartu ezinik egoten da ume bat baino gehiago eta igande goizean urduritasuna areagotu egiten da. Jaunartze jantzia soinean, etxetik irten bezain laister umeak familia-kon protagonista izaten dira eta igandea egun ahaztezina bihurtzen da. Katekistek diotenez, euren emozio handia sortzen die umeak Jaunartzea egiten ikusteak. Arrasaten aurten 154 umek egin dute Jaunartzea San Fransizko, San Andres, La Merced, Uribarri eta Musakolako parrokietan eta ekainaren 2an eta 9an San Juan parrokian egingo dute beste 31 umek.

Zer da zuretzat Jaunartzea?



Ainhoa Vitoria
8 urte

“Niretako Jaunartzea egun berezia izango da familia guztia elkartuko garelako. Soineko txuria eta luzea eramango dut eta horrek poz handia ematen dit. Jaunartzea egin eta gero katekesira joaten jarraitzeko asmoa daukat”.




Jone Fernandez
9 urte

“Jaunartzea niretzat jai handi bat da eta uste dut senitarteko asko etorriko direla. Nire jantzia txuria da baina ez oso luzea, belaurerainokoa. “Cifras y Letras” jokua oparituko didatela badakit, baina besterik ez”.



Mainer Bernier
9 urte

“Jainkoaren gorputza hartuko dudalako eta familia elkartuko garelako, Jaunartzea jai handi bat izatea espero dut. Jantzi txuri eta luzea eramango dut. Ez dakit zer oparituko didaten baina horrek ere ilusio handia egiten dit”.



Ion Gonzalez
8 urte

“Jantzi beltza eta pajarita eramango dut Jaunartze egunean. Opariek eta familia biltzeak ematen dit poza, 58 lagun elkartuko gara eta. Ez dakit zer oparituko didaten baina dirua ematea gustatuko litzaidake nik nahi dudana erosteko”.

Andeetako Huascarán eta Alpamayo mendietara hiru arrasatear

Bittor Amozarrain, Josu Pereda eta Mikel Arana gaur maiatzak 31 abiatu dira Perura hainbat mendi igotzeko asmoz. Besaide elkarteko hiru mendizale hauek Pirineoko eta Alpeetako mendiak ondo ezagutzen dituzte. Horregatik erabakiko dute airez aldatu eta Peruko bidaia egitea. Bittor eta Mikel orain dela bi urte Bolivian izan ziren "6.500 metroko Illimani eta 6.000 metroko HuaynaPotosi mendiak igo genituen. Ondo moldatu eta gustora ibili ginez berriro animatu gara itzultzera". Itzuli eta helburu zehatz batzurekin gainera "gure asmoa mendikate zurian dauden 6.768 metroko Huascarán eta 6.000 metroko Alpamayo mendien tontorrera heltzea da. Horrez gain, beste hiru bat mendi txikiago igotzea espero dugu".

Mendien ezaugarriak

Orain Perun sasoi lehorra da, mendietan ibiltzeko aproposena abuztura arte. Horrela izanda ere, aurkitu dezaketenarekin kezkatuta daude "denboraldi hasieran goaz eta oraindik elurra asentatu barik egon daiteke, beraz arretaz ibili beharko gara elurjauzi, kornisa eta abarrekin.



Mikel Arana, Bittor Amozarrain eta Josu Pereda Andeetako abentura egiteko gertu.

Gainera gerta daiteke bideak zabaldu behar izatea". Igo behar dituzten mendiak bestalde, badute euren arriskua "Alpamayok goi aldean oso korredore estua du eta izotz asko egoten da, kornisak jausteko arriskua dago. Huascaránen elur asko egoten da eta glaziarretan pitzadurak erdi estalita egon daitezke, horrek zuloetan jausteko arriskua du". Mendi bidaia erakargarri hori egiteko ez dutela prestakuntza berezik egin diote. Mendien asko ibiltzen dira eta oso gogoko dute kirola egitea beraz, urte osoan egoten

dira sasoiaren eta azken boladetan gehiago zaindu badira ere, ez dute esfortzu handirik egin. "Ez dut uste entrenamendu zehatzik egin behar denik, garrantzitsua mendian aklimatzea da. Lehen egunetan nahiko txarto pasatzen bada ere, gorputza ohitu ahala bertan jartzen zara sasoiaren" dio Bittorrek.

Mikel eta Bittor Bolivia-ko mendietara joan zirenez badute esperientzia Andeetan. Josu berriz, sekula ez da joan eta beldur hori badu "Ez naiz inoiz joan eta aklimatizazioak ematen dit beldur apur bat.

Hemen sasoiaren egon zaitezke baina hango mendietara ez bazara ohitzen, ez du ezertarako balio hemen egindako ahaleginak". Hiru gazte hauei 200 mila pezeta inguru irten-go zaie bidaia. Merkea ez den arren, beste opor batzuen beste balio duela uste dute "abuztuan 15 egun hotelean joanez gero, hori edo gehiago gastatzen duzu".

Mikel eta Josu San Fermínetan itzuliko dira Perualdetik. Bittorren asmoa beste hilabete bat geratzea da. Hori bai, gustora badago eta gogoa badu.

Atletismoko Euskadiko txapelketa Mendizorrotzan

Infantil mailako Gipuzkoako txapelketa burutu zen Ordizian. Arrasateko taldeko Fernando Nogales eta Oscar Gavilanek hartu zuten parte. Fernandok 1.000 metrotan 2 minutu eta 57 segunduko denbora eginez zilarrezko domina eskuratu zuen, 600 metrotan bron-

tzezko domina minutu bat eta 38 segunduko denborarekin. Oscar Gavilanek bi jaurtiketetan ez zuen zortetik izan eta nulo egin zuen, jaurtiketa ona 27 metro eta 80 zentimetrokoa izan zen. Bi atleta hauek Euskadiko txapelketara joateko beharrezko denborak lortu dituz-

te. Txapelketa asteburu honetan Mendizorrotzan izango da. Bestalde Zumarragan beste txapelketa bat izan zen zapatuan. Arrasateko ordezkariak honelako emaitzak lortu zituzten:

300 metro Kadete

Unai Sarabia.....39"5

Jonatan Fernandez41"8
Alfredo Diez.....43"7

1.000 metro

Iban Juez.....2'52"
Oliver Fernandez.....2'58"

1.500 metro. Absolutoa

J. Ramon Petrenas.....4'15"
Felix Sanchez.....4'17"

Rugby taldearen zilarrezko eztaiak

Rugby taldea sortu zenetik 25 urte igaro direnean ekintza desberdinak antolatu dituzte zilarrezko eztaiak ospatzeko. Zapatuan jubeniil mailako rugby topaketa bat izango da Garagartzako zelaian goizeko 10.30etatik aurrera. Bertan Arrasate, Hernani, Irun eta Ordiziako taldeak egongo dira lehian. Hala ere egun handiena ekainaren 8a da. Orduan Euskadiko rugby selekzioa eta Bordelako Begles taldea nor baino nor izango dira Atxabalpeko zelaian arratsaldeko 5.30etan.

Bi txapelketa txirrindularientzat

Afizionatu mailako txirrindulari taldeak Soraluzen izango den Gipuzkoako txapelketan hartuko du parte zapatuan. Taldeko gipuzkoar guztiak irteeran egongo dira goizeko 9.15etan hasiko den frogan. Soraluzetik Bergarako bidea hartuko dute txirrindulariek, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza zeharkatuz berriro Bergarara abiatzeko. Hortik Eibarrera, horrela hainbat buelta emanaz. Helmuga Soraluzen egongo da eta ibilbideak guztira 131 kilometro ditu. Domekan Euskadiko txapelketa burutuko da Durangon eta hor ere Arrasateko txirrindulariak izango dira.

Zikloturisten irteera

Zikloturistek ohiko irteera egingo dute domekan. Ibilbidea: Arrasate, Kurtzeta Gaina, Legutio, Etxaguen, Murgia, Oroko Santutegia, Murgia, Gasteiz, Betoño, Landa eta Arrasate. Guztira 104 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterroindik



Eskoriatza-Arrasate herri krosa domekan

Arrasate atletiko Arrasate Kirolak taldeak IV. Eskoriatza-Arrasate krosa antolatu du domekarako. Ibilbideak 8 kilometro eta 400 metro ditu. Irteera eguerdiko 12etan izango da Eskoriatzako plazatik, helmuga berriz, Arrasateko plazan. 16 urte gorako edonork har dezake parte eta izenematea 500 pezetakoa izango da. Sariei dagokienez, irabazleak bai emakume eta baita gizo-

nezkoetan ere 25.000 pezeta jasoko ditu. Bigarrenak 15.000 pta. eta hirugarrenak 10.000 pta. Juniorretan lehenarentzat 15.000 pta., bigarrenak 10.000 pta. eta hirugarrenak 6.000 pta. Beteranoek ere izango dute saririk. Lehenak 15.000 pta., bigarrenak 10.000 eta hirugarrenak 6.000 pta. Arrasateko Eskoriatzara joateko autobus zerbitzua jarriko dute.

Arrasate Kirol Proiektuko festa

Arrasate Kirol Proiektuak 95-96 ikasturteari bukaera emateko, urtero bezala azken festa antolatu du zapatutako. Goizeko 10etan bizi-

kleta ibilaldiari emango diote hasiera Iturripen. Hortik Aramaiora joango dira. 3. mailatik gorako ume guztiak daude gonbidatuta, baita

guraso eta lagunek ere. 12etan proiektuan ibili diren umeendako dominak eta era guztietako opariak banatuko dituzte.

Gipuzkoako txapelketan Arrasateko gimnastak bikain

Gimnasia erritmikako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen zapatuan. Arrasateko ordezkariak banan banako ariketetan hartu zuten parte lan polita eginaz. Alebinetan 16 ordezkarien artean La Salle ikastetxeko Ihintza Larrañaga izan zen onena. Bigarrena Idurre Garcia arrasatearra, Maria Etxeberria 5. gertatu zen, Miren Braga-

do 6. eta Janire Bolinaga 7. Infantiletan La Salleko Ioana Pulido izan zen trebeena, Eider Etxeberria Amara Berrikoa bigarrena eta Esther Fernandez arrasatearra hirugarrena. Edurne Canasek 9. postua eskuratu zuen. Kadetetan arrasatearen nagusitasuna erabatekoa izan zen. Lehen postua merezimendu osoz eta lan polita egin zuela-

ko Maite Albesez jaso zuen, bigarrena Sheila Sanchezek, Naiara Saenz hirugarren geratu zen eta Idoia Fernandez laugarren. Guztiak arrasatearrak.

Bestalde Elena Lanuza A mailako Gipuzkoako txapelketan izan zen Donostian eta bigarren tokian sailkatzea lortu zuen.

Edurne Uribesalgo

Eskulanetan burubelarri murgilduta

Bi urte daramatza lanean Edurne Uribesalgok Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruan bertako emakumeei eskulanak egiten irakasten. Magisteritza ikasketak egin zituen 28 urteko arrasatear honek baina eskulanek zuten arrakasta ikusirik, nahiago izan zuen bide horretatik abiatzea. Orain bere ikasleek egin dituzten eskulanak daude ikusgai Monterronen domekara arte.

— Non eta noiz ikasi zenuen eskulanak egiten?

— Magisteritza ikasten nengoela hasi nintzen mundu hau deskubritzen, betidanik gustatu izan zaizkit eskulanak eta. Harrezgero ikastaroak egiten hasi nintzen, bai Arrasaten eta baita Gasteizen ere. Liburuak irakurriz ere ikasi dut.

— Orduan, eskulanak egitea ikastetxeetan klaseak ematea baino gehiago gustatzen zaizu, ez?

— Beno, horregatik baino lan kontuengatik hasi nintzen eskulan eskolak ematen. Magisteritza amaitu eta gero hiru urte pasa nituen eskolak ematen baina ondoren langabezian geratu nintzen. Eskulanek harrera ona zutela eta jende askok ikasi nahi zuela ikusita, horretara dedikatzea erabaki nuen eta urtebete gai hori sakontzen egon nintzen. Ondoren klaseak ematen hasi nintzen.

— Teknikak ezagutzea nahikoa da eskulan on bat egiteko?

— Teknikak jakitea garrantzitsua da baina praktikarik egiten ez bada ez dago



zer eginik. Bestalde esku ona ere eduki behar da.

— Azkenaldian oso modan dago eskulanak egitea. Zer diozu?

— Bai, egia da. Jende piloa hasi da eskulanak egiten ikasten. Normala da, azkenean, denborapasa oso aproposa da eta. Jende nagusiari ondo etortzen zaio, lasai egiten den gauza bat delako eta jende berria ezagutzen dutelako.

— Emakumeak baino ez dira ikusten ikastaro hauetan. Gizonak zergatik ez dira ani-

matzen?

— Ez dakit. Lotsagatik izan daiteke, edo bestela, eskulanak egitea emakumeen gauza dela pentsatzen dutelako oraindik. Arrazoi bategatik edo besteagatik, oso gizon gutxi etortzen dela esan behar dut. Arrasaten ez daukat gizon ezko ikaslerik eta Bergaran hiru baino ez.

— Emakumeek zer ikasi nahi izaten dute?

— Margotzeko gauzak ekartzen dituzte, bai egurrezkoak eta baita eskaiolazkoak ere. Margotzen ikasi nahi izaten dute. Markoak, kutxak,

pertxeroak, errebisteroak... denetarik margotzen da.

— Eta marmitak?

— Baita baina orain ez dauden hain modan. Asko ikusi dira eta jendea asperetzen hasi da.

— Zuk zein teknika irakasten diezu ikasleei?

— Hiruhilabetero teknika desberdin bat irakasten saiatzen naiz baina jendeak nahi duena margotzea denez, pintura rustikoa baino ez dugu ikasi orain arte. Orain papezarekin lan egiten hastea gustatuko litzaidake. Aukera asko ematen du, oso merkea da eta gauza politak egin daitezke.

— Jendea "engantxatu" egiten da?

— Bai, guztiz. Emakume askok hiruhilabete baterako bakarrik ematen dute izena baina gero jarraitu egiten du, eskulanek engantxatu egiten dute eta.

— Garestia da eskulan bat egitea?

— Baietz uste dut. Lehenengo margotu nahi den irudia erosi behar da eta ondoren margoak eta pintzela. Azkenean garesti irtetzen du, baina beti ere dekorazio den detako eskulanak baino merkeago. Gainera, norberak gauza bat egiteak erostea baino satisfazio gehiago ematen du.

— Zer moduz doa Monterrongo erakusketa?

— Goizetan jende gutxi joaten da, gainera, egiten duen eguraldiarekin... baina arratsaldetan lagun asko hurbildu da Monterronera. Pozik gaude.

“Emakume askok hiru hilabete baterako bakarrik ematen dute izena baina gero jarraitu egiten du, eskulanek engantxatu egiten dute eta”

Ur Antzerki Taldea

Romeo eta Julieta Arrasatera datoz

Oreretako Ur Antzerki Taldeak "Romeo y Julieta" bere azken lana eskainiko du bihar Amaia antzokian gaueko 10.30etan. William Shakespearek 1595an idatzi zuen obra tragikoa gaurkotasunera egokitu eta Helena Pimentak arrakasta handiko obra sortzea lortu du.

Urnietako Sarobe zentruan iazko irailaren amaieran eskeini zuen Ur Antzerki Taldeak lehen aldiz "Romeo y Julieta" antzezlan eta ondoren Donostiako Victoria Eugenia antzokian egin zuen estreinaldi ofiziala urrian. 1995an Shakespeareren "Sueños de una noche de verano" antzezlaren bertsioarekin taldeak lortu zuen arrakasta itzela eta sari zaparradaren ostean, azken lan honek ere kritika ona izan zuen bere estreinaldian. Egunkari askok hizpide izan zuten Ur taldearen lana Donostian estreinatutako zenean: "Romeo y Julieta" obrak erraz aurkitzen ez diren edertasun eta kalitatea dauka" eta "Gaur egungo "Romeo y



Julieta" modernoa da, arina. Egungo jantziekin, egungo hizkerarekin eta gaurko errealtate sozialera ezin hobeto egokitutako obra da" bezelako komentarioak irakurri

zitezkeen hainbat egunkaritan.

"Romeo y Julieta" antzezlana "Premio Padrín de la crítica gaditana" saria lortu zuen 1995ean Cadizko festibalean. Orain, UR Taldea

biratzen ari da estatuan eta estatutik kanpo, Brasilgo Rio de Janeiro eta Belo Horizonte eta Kolombiako Manizales herriak barne.

Kurrikulum paregabea

1987an Ur Antzerki Taldea sortu zenetik gaur arte lau antzezlana sortu ditu: "Rémora", "Antiheroes", "Sueño de una noche de Verano" eta "Romeo y Julieta". Azkenbigarren obrarekin estatuko Antzerki Saria 1993an eta beste hamaika sari lortu zituen. Gainera 13 herrialde desberdineko ikusentzulegoaren txaloak jaso zituen eta 200.000 lagunetik gora ikusi zuten.

Ur Antzerki Taldeak bati-pat gazteei zuzendutako obrak egiten ditu eta. Antzerki taldeko partaideek diotenez, "ez dugu obra klasikoak sutsu defendatzen dituzten puristen kritikarik jaso ere".

Antzerkirako sarrerak 1.000 ptan salduko dira takilan, Gazte Txartelarik 800ean.

Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



ESKORITZAKO
MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:

1996-97 ikasturterako aurreinskripzioepea zabalik dagoela.

Heziketa arloan espezialitate erreglatuak ez ezik hainbat eginkizun bete ahal izateko oinarriko formakuntza eskaintzen du karrera honek: hala eskoletan, nola euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan.


Informazioa: IRAKASLE ESKOLA
Tfnoa: 71 41 57
ESKORITZA

UDALEKUAK 96

Haur eskola 1.2.3. maila (3-5 urte)

BABYLEKUAK

Lagun giroa
Jolasak
Ibilalditxoak
Pizina
Sorpresak



OHO 1.2.3.4.5.6.7.8. maila (6-14 urte)

UDALEKUAK ARRASATEN

Txangoak
Jolasak
Kirolak
2/3 eguneko irteerak
Abenturak
Sorpresak

OHO 3.4.5.6.7.8. maila (8-14 urte)

GARAIO ABENTURAZKO UDALEKUAK


Antzerkia
Piragua Malabarrak
Bizikleta Gaubelak
Trabesiak
Irratia/TB

OHO 6.7.8 maila (11-14 urte)

ESKUZ-ESKU IPARRALDE-HEGOALDE ELKARTRUKEA

Musika
Dantza
Antzerkia
Txangoak
Mimoa

Akrobazia
Malabarrak
Gaubelak



BBB, FP, REM 1.2. maila (14-17)

EUSKAL HERRIARI BIRA



Harremanak, Ohiturak
Lekuen ezagutza
Denda, Festak



Informazio gehiagorako

TXATXILIPURDI. Pablo Uranga, 4 • Tfnoa: 79 54 46



● *Pello Urizar*

Arrasatear bat Eako gazteen buru

Maiatzean Eako gazteen Idazkari Nagusi izendatu dute Pello Urizar arrasatearra. Orain 28 urte Musakolan jaiotako gazte honek Eskola Profesionalean egin zituen elektronika ikasketak, lan-munduan sartu-irten batzuren ondoren eta nolabait egoeragatik etsita, bere kontura ireki zuen enpresa orain hiru urte: Arrasate Zerbitzuak.

- Noiztik politika munduan?

- Betidanik, etxean arnastutako gauza izan da. Sasoi batean EGI barruan egon nintzen eta EA sortu ondoren, bertako gazte erakundean.

- Maiatzaren hasieran, baina, kargu garrantzitsua jasozenuen, EA Gazteriako Idazkari Nagusi.

- Bi urterako kargua da, orain arte egindakoari jarraipen bat eman eta helburu berriak jartzea izango litzateke nire lana. Kongresoaren ondorengo lehen batzordea izan genuen joan den astean, eta idazkaritza bakoitzak hartu zuen bere konpromesua hurrengo batzordera bi urterako helburuak eramateko.

Behar bada utopia izango da, baina talde guztiaren harremanak hobetzea gustatuko litzaidake. Izan ere, abertzale

sentitzen den jende asko dagoela iruditzen zait, baina gero ez du konpromesurik hartzen, paso egiten du, giroagatik erre-ta dago; abertzale ez direnak, berriz, gorantza doaz.


- Harremanak hobetzea aipatu duzu. Herrian giro txar samarra ikusten da, zer egin beharko litzateke?

- Herrian, kaleko giroa lasaitu beharko da, kaleko jendea hori eskatzen dabil eta.

- Zer esan nahi du kalea lasaitzeak?

- Beste herri batzuekin konparatuta, Arrasaten HBk alkatetza edukita ere ondo lan egiten da, lasai eta ez da arazorik izaten. Azken urte honetan, baina, desberdintasuna ikusi da aurreko zortzi urteekin alderatuta. Ez dut esan nahi dena baten errua denik, azkenean Ertzainburu berria ere sartu da eta beharbada gauzak egiteko era desberdina izango du eta horrek izan dezake zerikusirik, baina jendea erre-ta dago. Argentaria erre zutenean jendea asko haserretu zen, Loitiren aurkako panfletoekin ere... jendeari ez zaio giro hori gustatzen. Kalea lasaituz gero hitzegitea errezagoa da.

- Zinegotzi zaren aldetik, EA eroso sentitzen da Arrasaten hirukoaren barruan?



- EAK asanblada egin zuen Arrasaten eta hirukoan sartzearabaki zen. Baina boto faltasuen kontuarekin jendea haserretu egin zen eta gobernuan sartzeko asmoa kalera-tu zen, eta gero ejekutibarekin berba egin eta ez ginela sartuko erabaki genuen. Gustora gauden edo ez? batzutan beste batzuetan baino gustorago, batzuekin haserre, besteekin hurrengoan.

Ez dakit zergatik, baina Arrasaten laugarren alderdia gara eta gauza guztien errua geuri botatzen digute.

- Zergatik ez da Alkate Jose Mari Loiti?

- Oraindik ez delako zentsura moziorik sinatu. Udala osatzerakoan bik huts egin zuten. Hauteskundearen aurretik EAK eraman zuen politikarekin, gehienbat herrian bakea edukitzeagatik, guri leporatu ziguten hura. Gero-ra denetarik entzun da, baten afiliatuak izan zirela, beste-

enak... Egia da orduan Eako zinegotziak gaizki pasatu genuela, erre-ta irten ginen eta baita alderdi moduan ere.

- Ardura berriak zerbaite-tan aldatuko du zure bizitza?

- Dagoeneko aldatu da, azken bi asteetan 1.500 kilometro egin ditut eta. Bartzelonara eta Santiagora joan behar izan dut, ERC eta BNG-ko gazteek gonbidatuta.

- Nola ikusten gaituzte kan-poko gazteek?

- Aspalditik gabilta harremanetan beraiekin. Kataluniarrak, galiziarrak eta euskaldunok arazo berdina daukagula argi ikusten dute, estatu espainiarra. Maila horretan identifikazio garbi bat egon izan da betidanik.

- Nora iritsi nahi duzu politikan?

- Inora ere ez. Izendape-na seguruen urte askotan lane-an ibili izanaren ondorioa besterik ez da. Egia esan, nik neuk ez nuen sartzetik nahi, den-bora pilo bat eskaini behar zaiolako, baina ezetz esaten ez dakidanez hortxe nago. Ez daukat gorako asmorik.

● **“Behar bada utopia izango da, baina talde guztiaren harremanak hobetzea gustatuko litzaidake”**

B

errogeitamar urteko alde dago gaurko bi argazkien artean. Goiko argazkia 1923. urteko San Isidro egunean ateratakoa da, Ines Mercader eta Bixente Gonzalezen ezkontza egunekoak; behekoa, berriz, urrezko eztaien ospakizunekoak.

1923. urteko argazkia Erdiko kalean aterata dago, ezkontza Parrokian egin zen eta. Bertan, ume pilo batez inguratuta agertzen da **Ines Mercader, Karlos Gonzalez** koinatuaren besotik helduta. Argi ikusten denez, eguraldi bikaina egin zuen egun hartan.

Iturriotz Kalean kokatuta zegoen Toki Ona jatetxean egin zituzten urrezko eztaiak Ines Mercaderrek eta Bixente Gonzalezek. Argazkian, ezkerretik hasita, **M^a Mancebo** ageri da lehenik, etxekoan laguna. Bere ondoren bi arrasatear ezagun, **Jokin Zaitegi** lehenengo eta **Jose Luis Iñarra** gero. **Bixente Gonzalez** eta **Ines Mercader** ondoren.

Ezkondutako berrogeitamar urtean ospakizunak egiteko, Txantxotenkoak (taberna, harategia eta arraindegia izan zuten), familia osoa inguruan bildu zuten egun hortan.



**ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.**



- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

BERTSOLARITZA

Bertso finala

Datorren ostiralean, ekainaren 7an, Euskal Herriko Eskolarteko VIII. Bertsolari Gazteen Txapelketako finala egingo da Monterron parkean arratsaldeko 5etan. Gipuzkoatik eta 14-18 urtekoen mailan Nerea Elustondo, Ainhoa Agirreazaldegia eta Leire Ostolaza arituko dira eta 14 urtetik beherakoen mailan Eneritz Azkue eta Egoitz Alkorta. Nafarroatik helduen mailan Ekiñe Etxepeteleku eta Erika Lagoma izango dira, txikien mailan finalistik ez. Iparraldeko finalistei dago-kionez helduen mailako ordezkariarik ez da egongo eta txikien mailan Amets Arzalluz eta Mirentxu Artxe arituko dira bertsoan. Bizkaiko finalistak aukeratzeko daude, bihar izango da Bizkaiko bertsolarien finala eta.

Euskadiko Bertsolari Gazteen Txapelketako finala Aitor Sarasua izango da gai-jartzailea. Epaimahaia berriz Imanol Lazkano gipuzkoarrak, Luis Bareiazarra bizkaitarrak, Juanjo Respaldiza Arabarrak, Joxema Leitza nafarrak eta Beñat Zulek osatuko dute.

Z E R N A H I A G O ?

M. Carmen Sebastian
“BK 100” dendakoa



- Jendeak zer erosten du gehien? Paper higienikoa, 100 pta. balio du eta.
- Arrasaten dauden era honetako denden arteko kompetentzia gogorra da? Guk ez dugu nabaritzen, zerbitzu desberdinak eskeintzen ditugulako.
- Nondik ekartzen dituzue produktuak? Txina, Balentzia, Mexiko eta estatutik.
- Zein ordutan jeikitzen zara? Goizeko 8etan.
- Prakah ala gonak? Prakah.
- Hondartza ala mendia? Mendia.
- Erretzen duzu? Ez.
- Kirolari bat? Julen Guerrero.
- Edari bat? Ura.
- Kafe hutsa ala ebakia? Ez bata ez bestea. Kafesnea.
- Irratia ala telebista? Telebista.
- Telebista kate bat? ETB-2.
- Zerk ematen dizu beldurra? Lan barik geratzeak.
- Zerk haserrarazten zaitu? Hipokresiak.
- Joaten zara mezetara? Ez.
- Zein aldizkari erosten duzu? “Cuerpomente”.
- Irakurri duzun azken liburua? “El mundo de Sofia”.
- Idolo bat? Ez daukat idolorik.
- Telebista aurkezle bat? Ramon Garcia.
- Zergatik? Oso naturala delako.
- Karta joku bat? Ez dut jolasten.
- Hartzen duzu eguzkia? Bai, 8ko babes kremarekin.
- Ezkonduta zaude? Bai.



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

a s e s o r i a
ARRASATE

Orain, Erdiko kalean gaude!

Erdiko kalea, 32 - 1. I

Tfnoa: 79 01 47


ARRASATE

• ESAERA •

“Gorrotoak ez du sekula gorrotoa baztertu; maitasunak suntsitzen du gorrotoa; hau betiko araudia da”.


DHAMAPADA

• JEROGLIFIKOA •



Noiz argitaratu da liburua?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ospitaleko Zuzendari Medikua. 9. Egokitze modua. 10. Sili-zioa. 11. Azken eta lehen bokalak. 12. Europako Komunitatea. 13. Lapurretan. 16. Gidatu aditzaren infinitiboa. 17. Musika-eskalako 5. nota. 18. Eskribitu. 20. Igebelar.

Bertikalak 1. Deuseztatu, suntsitu. 2. Lanbide. 3. Begirada. 4. Salatu. 5. (Ald.) Bere anaia Abel hil zuen. 6. Alfabetoko 21. letraren izena. 7. Masa. 8. Patrika, poltsiko. 14. Biblian lehenengo gizonaren izena. 15. Munduko kontinente handiena. 19. ZUFIAko kontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

Aries Esperantza galtzen ez baduzu, aberatsa izatea lortuko duzu.

Taurus Irakurriaz asko ikasten da baina baita kanpora irtenda ere.

Gemini Gutxi falta zaizu nahi duzun hori lortzeko.

Cancer Badago pertsona bat oso arraroa dena... zu al zara?

Leo Animatu zaitez eta hasi jaietara joaten.

Virgo Badira egiazkoak eta egiazkoak ez diren lagunak.

Libra Laster etxetz eta lagunez aldatuko duzu.

Scorpio Mutikotan jatorragoa zinen, orain berriz...

Sagitarium Bai arrazoia duzu. Mundu osoa zuri begira dago.

Capricorn Baietz aste honetan guztiz gaisotu.

Aquarius Zu bezalako lagunekin ez dago inora joaterik.

Piscis Zure erabakiaren zain dago zuk dakizun lagun kuttun hori.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA

San Juanak prestatzen

Jai batzordeak dagoneko ia prest du San Juanetako egitarau osoa.

ATBn ere ez daude lotan eta San Juanetako programazio berezia lotzen ari dira une honetan. Seberon karpa jarri eta hiru egunez bertatik egingo da programa: eguneko kontakizunak eta irudiak, urteko pertsonaiak, umeendako lehiaketa, zuzeneko ekitaldiak... denetarik.



KOMIKIA



Zaguzar.

PROGRAMAZIOA



31 Ostirala
 13.30etan Albiste aurrerapena
 13.35etan Elkartean (Errep.)
 20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
 9.30etan Astebete

3 Astelehena
 13.30etan Albiste aurrerapena
 13.35etan Astebete (Errep.)
 20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
 21.30etan Mondrasport

4 Asteartea
 13.30etan Albiste aurrerapena
 13.35etan Mondrasport (Errep.)
 20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
 21.30etan Barrelekaixoka

5 Asteazkena
 13.30etan Albiste aurrerapena
 13.35etan Barrelekaixoka (Errep.)
 20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
 21.30etan Zinea

6 Osteguna
 13.30etan Albiste aurrerapena
 13.35etan Zinea (Errep.)
 20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
 21.30etan Elkartean

7 Ostirala
 13.30etan Albiste aurrerapena
 13.35etan Elkartean (Errep.)
 20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
 21.30etan Astebete

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Dosantos, 9. Ego-kiera, 10. Si, 11. Ua, 12. EK, 13. Ebas-ka, 16. Gida, 17. Sol, 18. Idarzi, 20. Nenufar.
Bertalak: 1. Desegin, 2. Ogi-bi-de, 3. So, 4. Akusatu, 5. (Ald.) Niak, 6. Te, 7. Ore, 8. Sakeia, 14. Adan, 15. Asia, 19. ZI.
Jeroglifikoa: Igaz eta aurtan.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)



Bonaventure • Diesel
 Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 11 72

Etxebizitzak

- **Bi ohedun logela alokatzen da** Elkano kalean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Torreviejan apartamentua alokatzen da.** Bi logela, pizina eta ikuzgailua eta hondartzatik oso gertu. Tfnoa: 79 53 18.
- **Jakan apartamentua alokatzen da udan.** Tfnoa: 74 15 22.
- **Etxebizitza salgai Erdiko kalean.** Tfnoa: 79 96 14.
- **10 milioi pezeta inguruko etxebizitza erosi-ko nuke.** Tfnoa: 77 00 77.
- **Baserrira salgai Gesalibarren.** Dei egin arratsaldez edo gauez 79 97 35 tfnora.
- **Laredon apartamentua alokagai.** San Juan asteen eta uztailean. Tfnoa: 76 44 34.
- **Laredon apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Ezcaray-en (Errioxa) pisua alokagai** uztaile eta irailean. Kirol instalakuntzekin. Tfnoa: 79 31 56.
- **Peñiscolan apartamentua alokatzen da.** Tfnoa: 79 57 31. Arratsaldez.
- **Bergaran baserrira salgai** 11.000 m² terrenoarekin. Prezioa: 18.000.000 pta. Tfnoa: 71 63 31.
- **Oñatin etxebizitza eta garajea salgai,** sukaldia, bainugela, 3 logela, egongela... dena berriztua. Prezioa: 13.000.000. Tfnoa: 71 63 31.
- **Castejonon (Nafarroa) pisua salgai.** Tfnoa: (948) 81 40 15.
- **Torreviejan apartamentua alokatzen da.** Guztiz jantzita eta hondartzatik gertu. Tfnoa: 78 14 72.
- **Alokatutako pisu bat osatzeko jendea behar da.** Tfnoa: 79 86 06. Mikel.

Lana

- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.
- **Emakumea lan egiteko prest.** Tfnoa: 77 10 25.
- **Esperientzia duen neska euskalduna jatorria behar da** tabernan lan egiteko. Oso ordutegi ona. Tfnoa: 79 60 10. Arantxa.
- **Lanak ordenadorez pasatzen dira.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Emakume euskalduna behar da** umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 06 50. Dei egin 9etatik aurrera.
- **36 urteko andra euskalduna** etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 77 79.
- **Neska prest etxeko lanak egiteko.** Dei egin gauez 77 07 77 tfnora.
- **Klase partikularrik ematen dira.** Tfnoa: 79 06 39.
- **Informatikako 4. mailako ikaslea** OHO, EEE, MsDos, C eta Pascal-eko klase partikularrik emateko prest. Tfnoa: 79 34 58.
- **Andra euskalduna etxeko lanak** egin edo atariak garbitzeko gertu. Tfnoa: 79 39 42.
- **BUP 2. mailako** fisika eta kimikako klase partikularrik jasoko nituzke euskaraz. Tfnoa: 79 66 92.
- **Esperientziadun neska** goizez umeak, pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 44.

Salerosketak

- **Bigarren eskuko trikitixa erosi-ko nuke.** Eli. Tfnoa: 72 30 25.

• **Baja emanda daukan R-18 saltzen da** piezak aprobetxatzeko. Tfnoa: 79 50 96.

• **Volkswagen 1.200 eskarabaja salgai.** Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tfnoa: 77 0775. Gauetan.

• **Opel Corsa autoa salgai.** 4361-V. 100.000 pta.tan. Tfnoa: 79 15 07.

• **Renault Express 1.1 salgai.** NA-Y. Tfnoa: 79 11 20.

• **Paseorako Orbea txirindua salgai.** 8.000 pta. Tfnoa: 79 99 82.

• **Kanpingerako karroa salgai.** Sei plazakoa eta egoera onean. Dei egin 20.30etatik aurrera 79 99 53ra.

• **Fagor markako mikrozeramikako** plaka berria salgai. Prezio egokia. Tfnoa: 79 95 79.

• **Komertziorako baliagarriak** diren kristalezko estanteriak salgai. Tfnoa: 79 65 31.

• **Eskulanak egiteko larrua salgai.** Tfnoa: 79 65 31.

• **Citroën AX, SS-AM autoa salgai.** Oso prezio ona eta urtebeteko garantiarekin. Tfnoa: 79 18 18 edo (908) 57 93 86.

• **Astelehenean bagoaz** eta etxea hustutzen ari gara. Koloreetako Philips telebista eta sukalde berria ditugu salgai. Bakotzak 10.000 pta. Astelehena baino lehen deitu. Tfnoa: 79 97 38.

Denetarik

• **Joan den astean urrezko pultsera** bat galdu nuen erdigunean edo Eroski inguruan. Tfnoa: 79 84 35. Eskertuko da.

• **Maiatzaren 21ean, asteartean,** eguzkitarako betaurrekoak galdu nituen Garibai kalean. Tfnoa: 79 25 15.

Aste Gazte

Lana

• Basauriko Udal Kultur Etxeak, honako lanpostu hauek kaleratu ditu: A) Aretoko eta mantenturako arduradun postua. Goi-batxilergoa eta baliokidea izatea eskatzen da. B) Aretoko eta mantenturako lanetarako laguntzaile postua. OHOk eskola titulua edo parekoren jabe izatea eskatzen da. C) Txartel-saltzailearen lanpostua. OHOk eskola titulua edo baliokidea. Guztien epea: ekainak 10.

• Iruñako Udalak, soziologo lanpostu bat kaleratu du. Soziologian lizentziatuei zuzenduta. Epea: ekainak 14.

Ikastaroak

• Arrasate 96 Udako Kirol Kanpaina. Eskalada, espeologia, mendiko bizikleta, urazpiko kirola, arku tiraketa... Bi txanda: A) ekainaren 27tik uztailearen 10era. b) uztailearen 11tik 23ra.

• "Musika bizia" Gernika-Lumoko musika ikastaroa eta jaialdia. Uztailearen 22tik abuztuaren 3ra, mintegiak, kontzertuak eta piano, kamara musika, biola... klaseak. Epea: uztaileak 19.

Hizkuntz egonaldiak

• Ingelesa Segurako aterpean. 18-29 urte bitarteko gazteei

zuzenduta. Kuota: 45.000pta. Izenematea: ekainaren 3tik 21era.

Lehiaketak

• "Enpresa eratzekeo gazteentzako XI. ideia lehiaketa" 18tik 30urte bitartekoei zuzenduta. Sariak: 1.100.000 pta.zuen ideia irabazle suertatzen bada eta sozietatea eratan baduzue 2.500.000 pta. arte rainoko saria. Epea: irailak 20.

• Zumaiaiko VII argazki lehiaketa. Edozein zaletu har dezake parte. Zuribeltzean, laborategiko edozein teknika onartzen da. Epea: ekainaren 21ean.

"Zaharrak ez dira gazteekin fidatzen gazteak izan direlako"

SHAKESPEARE

Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



ROMEO Y JULIETA

W. Shakespeare

Bertsioaren zuzenketa:

ELENA PIMIENTA

GAUR

Maiatzak 31 (Ostirala)

- **Amaia Antzokian**
- **Gaueko 22.30etan**
- **SARRERAK: 1.000 pta.**
(Gazte-Txartelarekin 800 pta.)

UR
ANTZERKIA



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



FAGOR



**KONTZEPTU
BERRIA**

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42